



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**

**Berdintasuna
Igualdad**

2021EKO UDAL AURREKONTUAREN ANALISIA GENEROAREN IKUSPEGITIK

2021eko otsaila

1. LEGE ETA PROGRAMA ESPARRUA

UDAL ARAUDIA

- DONOSTIAKO UDALAREN EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO IV. PLANA (2020-2024), Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko urriaren 20an onetsia. <<*Aurrekontu eta kudeaketa plan feministak*>> planaren 1. proiektua – emaitza. Udalaren berdintasunerako plangintza tresna berriaren zortzi proiektu-emaitzetako lehena da, eta haren indarraldian lortu beharreko helburu-lorpenetan jartzen du arreta. Dokumentu horretan, gai honi buruzko hainbat neurri jasotzen dira:
 - *Berdintasuna, erabakiak hartzeko giltzarria* azpiproiektua.
1.3. neurria. Berdintasuna indartzea partaidetza aurrekontuetan.
 - *Aurrekontuak genero ikuspegitik aztertzea* azpiproiektua
1.6. neurria. Programa gehiago aztertzea generoaren ikuspegitik.
1.7. neurria. Partida moreen gauzatzearen kontrola hobetzea.
1.8. neurria. Kudeaketa planetan jasotako berdintasunerako ekintzak aurrekontuan sartu diren aztertzea.
1.9. neurria. Aurrekontuko diru sarrerak aztertzen hasia.
1.10. neurria. Aurrekontu programak aztertzean hautemandako desberdinkeriak gainditzeko neurriak proposatzea.

ERKIDEGOKO ARAUDIA

- 4/2005 LEGEA, OTSAILAREN 28KOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKOA. 14. artikulua. <<*Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan*>>.
- ERABAKIA, 2016KO UZTAILAREN 21EKOA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ERAKUNDE ARTEKO BATZORDEARENA, ZEINAREN BIDEZ KONPROMISO BATZUK HARTZEN BAITIRA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO OTSAILAREN 18KO 4/2005 LEGEAREN BETETZE, GARAPEN ETA APLIKAZIOARI BURUZ 2015EAN EGINDAKO EBALUAZIOAREN EMAITZETAN OINARRITUTA. 2. apartatua. *Progresiboki handitzea administrazio publiko bakoitzean berdintasun politiketara bideratutako aurrekontuaren ehunekoa.*
- EAE-KO EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VII. PLANA. Gobernu Onerako 2 helburu:
 - BG.2 helburua. *Berdintasun politikak garatzeko aurrekontua handitzea*. I. Programa: Konpromiso politikoa.
 - BG.10 helburua. *Aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzea*. III. Programa: Genero ikuspegia lan prozeduretan.

2. GENEROAREN IKUSPEGIA DUTEN AURREKONTUAK

Aurrekontu publikoek eragin egiten dute hainbat kolektibok dituzten baliabideetan: emakumeak eta gizonak, migratzaileak, adinekoak, gazteak edo haurrak. Generoaren ikuspegia duten aurrekontuek bi helburu dituzte:

1. Kontuan izanda emakumeen eta gizonen artean dagoen desberdinkeria, **ezagutzea aurrekontuek emakumeengan eta gizonengan duten eragina**, ahal den heinean, kontuan izanda beste diskriminazio ardatz batzuk, esaterako, adina, migrazio egoera edo errenta maila.
Kontua ez da ea gastua berdina den emakumeentzat eta gizonentzat, horien beharrak eta egoerak asetzen dituen baizik.
2. **Berdintasuna sustatzeko tresna izatea**. Benetako berdintasunerantz aurrera egiteko formula nagusietako bat, gaur egun, generoaren *mainstreaminga* da. Estrategia horren helburua da jarduketa publiko guztiak generoaren ikuspegitik berrikustea, jarduketa horiek generoaren desberdinkeriak ez iraunarazteko edo zabaltzeko helburuarekin.

Emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko konpromiso politikoak eraginkorra izateko, hori bermatzeko neurriak behar ditu, esaterako, emakumeen eta gizonen berdintasunerako araudi espezifikoak sortzea, **aurrekontu baliabideak gehitzea** eta era egokian prestatutako eta legitimatutako egiturak eta pertsonak ezartzea politikak garatzeko, politikak planifikatzeko eta ebaluatzeko eta gardentasunaren kultura sustatzeko.

Aurrekontuak generoaren ikuspegitik aztertzea desberdinkeriei eta horiei aurre egiteko moduari buruzko ezagutza sortzen laguntzen duen azterketa tresna bat da, eta erabakiak era informatuan hartzen laguntzen du. Funtsezko tresna bat da helburu politikoak aurrekontu baliabideekin lotzeko.

3. DONOSTIAKO UDALAK GENEROAREN IKUSPEGIA SARTZEKO EGIN DUEN IBILBIDEA

Aurrekontu genero ikuspegidunak prestatzeko prozesua 2013ko ekainean hasi zen, Berdintasun Bulegoak lan jardunaldi bat antolatu zuenean Andaluziako Juntak gai horretan zuen esperientzia ezagutzeko. Jardunaldi horretan politikariek eta zuzendariek parte hartu zuten, baita Programakuntza, Azterlanak eta Aurrekontuak unitateko teknikariek, eta hainbat departamentutan aurrekontua eratzeko ardura duten teknikariek ere.

2013ko uztailan, Berdintasunaren eta Ogasunaren atalek metodologia bat adostu zuten. Nahiz eta metodologia horrek Andaluziako esperientziaren elementuak hartu zituen, Donostiako Udalaren tamainara, eskumenetara eta denboretara egokitu zen.

Une horretatik aurrera, aurrekontu programei eta horiei lotutako jardueri zein langileei buruzko informazioa biltzen hasi ziren, Euskal Herriko Unibertsitateko Yolanda Jubeto eta Mertxe Larrañaga irakasleen aholkularitzarekin.

2014ko otsailan, “**Aurrekontuak genero perspektibarekin egiteko gomendio txostena**” argitaratu zen, ordurako Udalbatzak onartua zuen 2014ko aurrekontu proposamenari zegokionez, eta horrek ezarri zituen oinarri metodologikoa eta gomendioei jarraituta eman beharreko hurrengo urratsak. Gainera, aurrez bildutako informazioa aztertuta, prozesuan horiek guztiak lehentasunez zein arloekin sakondu behar ziren identifikatu zuen. Hauek ziren arlo horiek: Azpiegiturak eta hiri zerbitzuak, Mugikortasuna, Gizarte Ekintza, Gizarte Sustapena eta Herri Partaidetza eta Donostia Kultura.

2014an zehar gobernu taldeak aurrekontuek duten genero eraginari buruzko prestakuntza jaso zuen, eta, halaber, lan prestakuntza saio bat egin zen aipatutako arloekin eta Ogasuneko eta Berdintasuneko teknikariek.

2014ko abenduan, “**Udal aurrekontuak genero ikuspegitik-2015**” txostena aurkeztu genuen, orduan proposamen fasean zegoen 2015eko aurrekontuaren gainean.

Programazio, Azterlan eta Aurrekontu Unitatearekin elkarlanean, 2015eko abenduan “**2016 udal aurrekontuaren azterketa genero ikuspegitik**” txostena aurkeztu genuen, orduan proposamen fasean zegoen 2016ko aurrekontuaren gainean. Azken horretan txertatu ziren aldaketa nagusiak bi dira:

- Txostenean udal aurrekontuak aztertu ziren soilik. Langileei eta kontratazioari buruzko azterketa txosten espezifikoa egin ziren.
- Txostena aurrekontu programen arabera egituratu zen, departamentuen edo zuzendaritzen arabera egin beharrean.

Ordutik, Berdintasun Bulegoak eta Programakuntza, Azterlanak eta Aurrekontuaren Unitateak batera lan egiten dute generoaren ikuspegia udal aurrekontuaren prozesuan sartzeko.

Prozesu honen emaitza, 2014-2018 aldirako Donostiako Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planaren ebaluazio txostenean jasotzen den bezala, hau da:

- **Berdintasunaren aurrekontu programa eta hainbat departamentutako partidak igo dira**, eta, horri esker, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planean jasotako beste neurri

batzuk garatu ahal izan dira.

- **Handitu egin da berdintasunerako gastu eraldatzailea.**
- **Berdintasuna txertatu da aurrekontuak prestatzeko prozesuan:** zuzendaritza askotako aurrekontu proposamenetan txertatu da, baita aurrekontu eztabaidan ere, eta berdintasun arloko gutxieneko politiko batzuk identifikatu dira, errespetatu beharrekoak.

2020ko udal aurrekontuetan, programen % 37 aztertu ziren, hau da, udal aurrekontuaren % 60,49. Berdintasunaren 12 partida espezifiko txertatu ziren eta gastu eraldatzailea % 0,51koa izan zen.

4. 2021: OHIZ KANPOKO ANALISIA

COVID-19ak ekarri duen gizarte eta osasun krisiak, jakina, badu eragina proiektu honetan. Kontuan izan behar da 2020ko udal aurrekontuak krisiaren aurretik egin zirela, 2020ko jardueraren genero adierazleak ez direla adierazgarriak eta aurrekontua doikuntza batzuekin luzatu zela 2021erako.

Horregatik, txosten honek udal aurrekontuaren ohiz kanpoko analisi bat egiten du, egitura honen arabera:

- 2021EKO UDAL AURREKONTUAREN ANALISI OROKORRA. Udal aurrekontuaren, helburu eta gastu politiken, programen eta kapituluaren aldakuntza panoramika.
- GASTU ERALDATZAILEAREN JARRAIPENA. Gastu eraldatzaitzat jotzen diren kontu-sailak berrikustea, krisi egoera horretan finkatzen edo murrizten diren ikusteko. Kasu askotan, partida txikiak izaten dira, zenbatekoari dagokionez, Udalaren ikuspegi orokorretik aztertuz gero, baina eragin handikoak berdintasunean eta genero indarkeriaren prebentzioan.
- GENEROA KONTUAN HARTZEN DUTEN PROGRAMEN JARRAIPENA. Generoaren ikuspegitik giltzarri diren programak eta partidak mantendu, handitu edo murriztu diren begiratzea. Gehien-gehienak 2020ko txostenean jarraipena egin zitzaizkien programak dira.

5. AURREKONTU OROKORRAK

Txosten honekin batera dagoen aurrekontu proposamenaren arabera, **Donostiako Udalak 397.387.617,00 euro kudeatuko ditu 2021ean, 2020an baino 35.153.019,00 euro gutxiago (% 8,13ko jaitsiera),** urte horretan udal aurrekontuaren zenbatekoa 432.540.636,00 eurokoa izan baitzen.

Gastu helburuei erreparatuta, **jarduera orokorrak % 16,5 igo dira** (gobernu organoak, administrazio orokorra...), eta **% 4,90 gizarte babes eta sustapenerako jarduketak** (Gizarte Zerbitzuak eta Berdintasuna); hain zuzen ere, jarduketa horiek oso lotuta daude zainketei eta bizitzaren jasangarritasunari, eta giltzarri dira genero ikuspegitik. % 16,93 **jaitsi da lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpena** (osasuna, hezkuntza, kultura, kirola), % 10,87 **jarduera ekonomikoak (enpresak, garraioa, azpiegiturak)**, % 11,20 **oinarrizko zerbitzu publikoak** (herritarren segurtasuna, etxebizitza, hirigintza, ura eta saneamendua, hondakinak, eta abar), eta % 3,50 **zor publikoa**.

Gastu arloa	2020		2021		Aldea	
	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%
Oinarrizko zerbitzu publikoak	166.961.126,00 €	%38,60	148.260.048,00 €	%37,31	- 18.701.078,00 €	-%11,20
Babes eta sustapen sozialeko jarduketa	31.855.028,00 €	%7,36	33.415.208,00 €	%8,41	1.560.180,00 €	%4,90
Lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpena	91.138.159,00 €	%21,07	75.712.801,00 €	%19,05	- 15.425.358,00 €	-%16,93
Jarduketa ekonomikoak	84.805.547,00 €	%19,61	75.584.938,00 €	%19,02	- 9.220.609,00 €	-%10,87
Jarduketa orokorra	43.283.833,00 €	%10,01	50.425.594,00 €	%12,69	7.141.761,00 €	%16,50
Zor publikoa	14.496.943,00 €	%3,35	13.989.028,00 €	%3,52	- 507.915,00 €	-%3,50

Gastu politikei erreparatuta, bost dira aurrekontuaren hazi direnak. Nabarmentzekoa da *Finantza eta zerga administrazioa* (% 137,74) eta *Langileen aldeko beste prestazio ekonomiko batzuk* (% 58,34) partidek izan duten hazkundea. Dezente gutxiago, baina igo egin dira *Beste jarduera ekonomiko batzuk* (% 7,84), *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* (% 3,34) eta *Hezkuntza* (% 1,23) partidak ere. ***Gizarte zerbitzuen eta gizarte sustapena* partidan, gastu politika nabarmen hazi da genero ikuspegitik.**

Gastu politikak	2020		2021		Aldea	
	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%
OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK						
Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna	49.177.358,00 €	%11,37	48.043.126,00 €	%12,09	-1.134.232,00 €	-%2,31
Etxebizitza eta Hirigintza	47.052.421,00 €	%10,88	34.420.077,00 €	%8,66	-12.632.344,00 €	-%26,85
Komunitate-Ongizatea	56.472.849,00 €	%13,06	51.724.025,00 €	%13,02	-4.748.824,00 €	-%8,41
Ingurumena	14.258.498,00 €	%3,30	14.072.820,00 €	%3,54	-185.678,00 €	-%1,30
BABES ETA SUSTAPEN SOZIALEKO JARDUKETA						
Erretiro pentsioak	20.000,00 €	%0,00	20.000,00 €	%0,01	0,00 €	%0,00
Enplegatuen aldeko beste prestazio	901.738,00 €	%0,21	1.427.780,00 €	%0,36	526.042,00 €	%58,34
Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena	30.933.290,00 €	%7,15	31.967.428,00 €	%8,04	1.034.138,00 €	%3,34
LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA						
Osasuna	2.258.569,00 €	%0,52	2.250.430,00 €	%0,57	-8.139,00 €	-%0,36
Hezkuntza	14.092.295,00 €	%3,26	14.265.983,00 €	%3,59	173.688,00 €	%1,23
Kultura	42.731.721,00 €	%9,88	37.267.919,00 €	%9,38	-5.463.802,00 €	-%12,79
Kirola	32.055.574,00 €	%7,41	21.928.469,00 €	%5,52	-10.127.105,00 €	-%31,59
JARDUKETA EKONOMIKOAK						
Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak	19.976.393,00 €	%4,62	19.405.743,00 €	%4,88	-570.650,00 €	-%2,86
Garraio publikoa	48.309.404,00 €	%11,17	45.397.945,00 €	%11,42	-2.911.459,00 €	-%6,03
Azpiegiturak	16.416.084,00 €	%3,80	10.669.457,00 €	%2,68	-5.746.627,00 €	-%35,01
Beste jarduketa ekonomiko batzuk	103.666,00 €	%0,02	111.793,00 €	%0,03	8.127,00 €	%7,84
JARDUKETA OROKORRA						
Gobernu organoak	6.061.958,00 €	%1,40	5.337.492,00 €	%1,34	-724.466,00 €	-%11,95
Administrazio orokorra	29.639.076,00 €	%6,85	27.060.615,00 €	%6,81	-2.578.461,00 €	-%8,70
Finantza eta zerga administrazioa	7.582.799,00 €	%1,75	18.027.487,00 €	%4,54	10.444.688,00 €	%137,74
ZOR PUBLIKOAK						
Zor publikoa	14.496.943,00 €	%3,35	13.989.028,00 €	%3,52	-507.915,00 €	-%3,50
GUZTIRA	432.540.636,00 €	%100,00	397.387.617,00 €	%100,00	- 35.153.019,00 €	-%8,13

Hauek dira gehien jaitsi diren politikak: *Azpiegiturak* (-% 35,01), *Kirola* (-% 31,59), *Etxebizitza eta hirigintza* (-% 26,85), *Kultura* (-% 12,79) eta *Gobernu organoak* (-% 11,95).

Banakatuago, aurrekontu programen arabera izandako aldakuntzak jaso ditugu.

% 100etik gorako hazkundeak: *Bidaiarien beste garraiobide bat* (% 423,33), *Kudeaketa ekonomikoa* (% 304,35), *Zeharkako zerbitzuen koordinazioa* (% 253,69) eta *Lehendakaritza* (% 143,74).

Asko hazi dira, orobat, % 20 eta % 100 bitartekoak; *Erretiroagatiko primak* (% 58,34); *Jasangarritasuna* (% 49,32) eta *Gizarteratzea* (% 39,00).

Hauek dira gehien jaitsi diren programak, % 50etik gorako murrizketak ere izan baitituzte: *Hauteskundeak* (-% 100,0), desagertu egin baita, *Anoeta Kiroldegia* (-% 90,53), *Bidaiarien hiriko garraio kolektiboa* (-% 78,03), *Mugikortasun bertikala* (-% 74,60), *Ekipamendu plana* (-% 70,20), *Sorospen etxea* (-% 68,54), *Hiri proiektuak* (-% 67,72), *Aterpetxeak: Zuzendaritza eta administrazioa* (-% 54,12) eta *Proiektuak eta obrak* (-% 51,26).

Aurrekontu programak	2020		2021		Diferencia	
	Total	%	Total	%	Total	%
OINARRIZKO ZERBITZU PUBLIKOAK	166.961.126,00 €	%38,60	148.260.048,00 €	%37,31	- 18.701.078,00 €	-%11,20
Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna	49.177.358,00 €	%11,37	48.043.126,00 €	%12,09	- 1.134.232,00 €	-%2,31
Udalizaingoa	24.789.792,00 €	%5,73	23.915.428,00 €	%6,02	- 874.364,00 €	-%3,53
Zirkulazioaren eta aparkamenduen antolamendua	6.484.406,00 €	%1,50	6.371.114,00 €	%1,60	- 113.292,00 €	-%1,75
Eskailerak, arrapalak eta igogailuak	405.500,00 €	%0,09	335.955,00 €	%0,08	- 69.545,00 €	-%17,15
Mugikortasun bertikala	315.000,00 €	%0,07	80.000,00 €	%0,02	- 235.000,00 €	-%74,60
Hiri mugikortasuna	8.775.134,00 €	%2,03	8.931.688,00 €	%2,25	156.554,00 €	%1,78
Herri-babesa	165.890,00 €	%0,04	93.757,00 €	%0,02	- 72.133,00 €	-%43,48
Prebentzio eta su-itzaltze zerbitzua, eta sorospena	8.241.636,00 €	%1,91	8.315.184,00 €	%2,09	73.548,00 €	%0,89
Etxebizitza eta Hirigintza	47.052.421,00 €	%10,88	34.420.077,00 €	%8,66	- 12.632.344,00 €	-%26,85
Hirigintza	16.122.213,00 €	%3,73	11.302.406,00 €	%2,84	- 4.819.807,00 €	-%29,90
Etxebizitza	20.609.662,00 €	%4,76	14.955.544,00 €	%3,76	- 5.654.118,00 €	-%27,43
Eraikuntzen birgaitzea	2.610.000,00 €	%0,60	1.742.070,00 €	%0,44	- 867.930,00 €	-%33,25
Bide publikoak	2.156.287,00 €	%0,50	1.832.919,00 €	%0,46	- 323.368,00 €	-%15,00
Solaketa eta afaltatzea	5.554.259,00 €	%1,28	4.587.138,00 €	%1,15	- 967.121,00 €	-%17,41
Komunitate-ongizatea	56.472.849,00 €	%13,06	51.724.025,00 €	%13,02	- 4.748.824,00 €	-%8,41
Saneamendua	5.211.203,00 €	%1,20	3.426.626,00 €	%0,86	- 1.784.577,00 €	-%34,25
Ura	4.097.498,00 €	%0,95	2.964.709,00 €	%0,75	- 1.132.789,00 €	-%27,65
Ura eta saneamendua: zuzendaritza eta administrazioa	924.886,00 €	%0,21	804.412,00 €	%0,20	- 120.474,00 €	-%13,03
Zabor bilketa	7.356.269,00 €	%1,70	6.886.274,00 €	%1,73	- 469.995,00 €	-%6,39
Hondakinen kudeaketa: San Marko	2.889.325,00 €	%0,67	3.279.337,00 €	%0,83	390.012,00 €	%13,50
Hondakinen tratatzea: San Marko	9.705.112,00 €	%2,24	9.776.927,00 €	%2,46	71.815,00 €	%0,74
Bide eta Etxaurren garbiketa	13.912.639,00 €	%3,22	13.572.664,00 €	%3,42	- 339.975,00 €	-%2,44
Polloe	2.059.141,00 €	%0,48	1.348.700,00 €	%0,34	- 710.441,00 €	-%34,50
Herri argiteria	4.222.331,00 €	%0,98	3.720.077,00 €	%0,94	- 502.254,00 €	-%11,90
Saneamendua eta arazketa: Añarbe	6.094.445,00 €	%1,41	5.944.299,00 €	%1,50	- 150.146,00 €	-%2,46
Ingurumena	14.258.498,00 €	%3,30	14.072.820,00 €	%3,54	- 185.678,00 €	-%1,30
Ingurumena: zuzendaritza eta administrazioa	382.714,00 €	%0,09	407.100,00 €	%0,10	24.386,00 €	%6,37
Parke eta lorategiak	7.231.461,00 €	%1,67	6.602.143,00 €	%1,66	- 629.318,00 €	-%8,70
Artikutza	762.199,00 €	%0,18	694.030,00 €	%0,17	- 68.169,00 €	-%8,94
Cristina Enea	625.000,00 €	%0,14	618.750,00 €	%0,16	- 6.250,00 €	-%1,00
Iraunkortasuna	1.692.360,00 €	%0,39	2.527.001,00 €	%0,64	834.641,00 €	%49,32
Hiriguneetako hots-, argi- eta atmosfera-kutsaduraren aurkako babesa	311.060,00 €	%0,07	291.966,00 €	%0,07	- 19.094,00 €	-%6,14
Hondartzak	3.253.704,00 €	%0,75	2.931.830,00 €	%0,74	- 321.874,00 €	-%9,89
BABES ETA SUSTAPEN SOZIALEKO JARDUKETAK	31.855.028,00 €	%7,36	33.415.208,00 €	%8,41	1.560.180,00 €	%4,90
Erretiro-pentsioak	20.000,00 €	%0,00	20.000,00 €	%0,01	- €	%0,00
Klase pasiboak	20.000,00 €	%0,00	20.000,00 €	%0,01	- €	%0,00
Enplegatuen aldeko beste prestazio ekonomiko batzuk	901.738,00 €	%0,21	1.427.780,00 €	%0,36	526.042,00 €	%58,34
Aldez-aurretik erretiratze sariak	901.738,00 €	%0,21	1.427.780,00 €	%0,36	526.042,00 €	%58,34
Gizarte-zerbitzuak eta gizarte-sustapena	30.933.290,00 €	%7,15	31.967.428,00 €	%8,04	1.034.138,00 €	%3,34
Gizarte-ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa	802.779,00 €	%0,19	801.260,00 €	%0,20	- 1.519,00 €	-%0,19
Gizarte zerbitzuen zentroak	4.119.212,00 €	%0,95	4.245.639,00 €	%1,07	126.427,00 €	%3,07
Lankidetzeta eta garapenerako hezkuntza	1.837.288,00 €	%0,42	1.802.014,00 €	%0,45	- 35.274,00 €	-%1,92
Donostia Lagunkoia	98.000,00 €	%0,02	75.000,00 €	%0,02	- 23.000,00 €	-%23,47
Apartamentu tutelatuak	1.699.518,00 €	%0,39	1.740.417,00 €	%0,44	40.899,00 €	%2,41
Gizarte abegi etxea	1.239.682,00 €	%0,29	1.249.364,00 €	%0,31	9.682,00 €	%0,78
Gizarteratzea	3.385.172,00 €	%0,78	4.705.428,00 €	%1,18	1.320.256,00 €	%39,00
Adin txikiko prebentzioa eta familia	3.184.451,00 €	%0,74	3.092.655,00 €	%0,78	- 91.796,00 €	-%2,88
Adineko pertsonen sustapena	359.051,00 €	%0,08	357.180,00 €	%0,09	- 1.871,00 €	-%0,52
Zaharren egoitzak	908.471,00 €	%0,21	908.471,00 €	%0,23	- €	%0,00
Etkez-etxeko laguntza	9.896.937,00 €	%2,29	9.614.992,00 €	%2,42	- 281.945,00 €	-%2,85
Gizarte larrialdietarako laguntzak	2.378.355,00 €	%0,55	2.378.355,00 €	%0,60	- €	%0,00
Berdintasuna	1.024.374,00 €	%0,24	996.653,00 €	%0,25	- 27.721,00 €	-%2,71
LEHENTASUNEZKO ONDASUN PUBLIKOEN EKOIZPENA	91.138.159,00 €	%21,07	75.712.801,00 €	%19,05	- 15.425.358,00 €	-%16,93
Osasuna	2.258.569,00 €	%0,52	2.250.430,00 €	%0,57	- 8.139,00 €	-%0,36
Komunak	378.060,00 €	%0,09	434.607,00 €	%0,11	56.547,00 €	%14,96
Eskola osasuna	169.990,00 €	%0,04	183.934,00 €	%0,05	13.944,00 €	%8,20
Osasun publikoa eta animalien ongizatea	859.767,00 €	%0,20	947.638,00 €	%0,24	87.871,00 €	%10,22
Sorospen etxea	255.330,00 €	%0,06	80.334,00 €	%0,02	- 174.996,00 €	-%68,54
La Perla bainuetxea	595.422,00 €	%0,14	603.917,00 €	%0,15	8.495,00 €	%1,43
Hezkuntza	14.092.295,00 €	%3,26	14.265.983,00 €	%3,59	173.688,00 €	%1,23
Hezkuntza: zuzendaritza eta administrazioa	607.825,00 €	%0,14	558.632,00 €	%0,14	- 49.193,00 €	-%8,09
Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua	7.274.350,00 €	%1,68	7.219.681,00 €	%1,82	- 54.669,00 €	-%0,75
Udalaren musika eta dantza eskola	4.500.154,00 €	%1,04	4.907.606,00 €	%1,23	407.452,00 €	%9,05
Heziketarako programak	287.249,00 €	%0,07	243.020,00 €	%0,06	- 44.229,00 €	-%15,40
Giza eskubideak	942.942,00 €	%0,22	890.503,00 €	%0,22	- 52.439,00 €	-%5,56
Kultur aniztasuna	479.775,00 €	%0,11	446.541,00 €	%0,11	- 33.234,00 €	-%6,93

Kultura	42.731.721,00 €	%9,88	37.267.919,00 €	%9,38	- 5.463.802,00 €	-%12,79
Kulturako administrazio orokorra: Donostia Kultura	30.947.231,00 €	%7,15	26.608.921,00 €	%6,70	- 4.338.310,00 €	-%14,02
Udalaren musika eta datza eskola (Liburutegia)	166.016,00 €	%0,04	156.323,00 €	%0,04	- 9.693,00 €	-%5,84
Tabakalera	2.292.163,00 €	%0,53	1.690.000,00 €	%0,43	- 602.163,00 €	-%26,27
Kultura: sustatzea eta bultzatzea	1.989.275,00 €	%0,46	1.918.100,00 €	%0,48	- 71.175,00 €	-%3,58
Udalaren musik-a eta datza-eskola (Txistulariak eta Emusik2016)	643.801,00 €	%0,15	647.205,00 €	%0,16	3.404,00 €	%0,53
Euskara	2.813.421,00 €	%0,65	2.753.957,00 €	%0,69	- 59.464,00 €	-%2,11
Zaharren etxeak	1.248.412,00 €	%0,29	1.197.132,00 €	%0,30	- 51.280,00 €	-%4,11
Gazteria	2.631.402,00 €	%0,61	2.296.281,00 €	%0,58	- 335.121,00 €	-%12,74
Kirola	32.055.574,00 €	%7,41	21.928.469,00 €	%5,52	- 10.127.105,00 €	-%31,59
Kirolak: zuzendaritza eta administrazioa	4.782.845,00 €	%1,11	4.272.605,00 €	%1,08	- 510.240,00 €	-%10,67
Kirolak: zuzendaritza eta administrazioa	160.000,00 €	%0,04	162.000,00 €	%0,04	2.000,00 €	%1,25
Donostia Kirola	3.138.083,00 €	%0,73	2.977.069,00 €	%0,75	- 161.014,00 €	-%5,13
Kirol instalakuntzak	2.813.421,00 €	%1,42	3.355.217,00 €	%0,84	- 2.801.424,00 €	-%45,50
Kirol instalakuntzak (Donostia Kirola)	9.468.893,00 €	%2,19	10.370.602,00 €	%2,61	901.709,00 €	%9,52
Anoeta Kiroldegia	8.349.112,00 €	%1,93	790.976,00 €	%0,20	- 7.558.136,00 €	-%90,53
JARDUKETA EKONOMIKOAK	84.805.547,00 €	%19,61	75.584.938,00 €	%19,02	- 9.220.609,00 €	-%10,87
Merkataritza, turismoa eta enpresa txiki eta ertainak	19.976.393,00 €	%4,62	19.405.743,00 €	%4,88	- 570.650,00 €	-%2,86
Azokak	3.950,00 €	%0,00	3.166,00 €	%0,00	- 784,00 €	-%19,85
Donostia Turismo	3.876.153,00 €	%0,90	3.326.601,00 €	%0,84	- 549.552,00 €	-%14,18
La Sirena aterpetxea	494.604,00 €	%0,11	435.738,00 €	%0,11	- 58.866,00 €	-%11,90
Uliako aterpetxea	331.581,00 €	%0,08	254.110,00 €	%0,06	- 77.471,00 €	-%23,36
Aterpetxeak: zuzendaritza eta administrazioa	118.574,00 €	%0,03	54.401,00 €	%0,01	- 64.173,00 €	-%54,12
Ekonomi-garapena	978.372,00 €	%0,23	824.967,00 €	%0,21	- 153.405,00 €	-%15,68
Donostiako Sustapena S.A.	14.173.159,00 €	%3,28	14.506.760,00 €	%3,65	333.601,00 €	%2,35
Garraio publikoa	48.309.404,00 €	%11,17	45.397.945,00 €	%11,42	- 2.911.459,00 €	-%6,03
Garraioaren arloko administrazio orokorra	185.114,00 €	%0,04	184.950,00 €	%0,05	- 164,00 €	-%0,09
Bidaiarien taldekako hiri-garraioa	1.509.000,00 €	%0,35	331.600,00 €	%0,08	- 1.177.400,00 €	-%78,03
Beste bidaiarien garraioa	6.000,00 €	%0,00	31.400,00 €	%0,01	25.400,00 €	%423,33
DBUS	46.609.290,00 €	%10,78	44.849.995,00 €	%11,29	- 1.759.295,00 €	-%3,77
Azpiegiturak	16.416.084,00 €	%3,80	10.669.457,00 €	%2,68	- 5.746.627,00 €	-%35,01
Hiri-mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa	1.370.429,00 €	%0,32	1.421.847,00 €	%0,36	51.418,00 €	%3,75
Proiektu eta obrak	10.990.650,00 €	%2,54	5.356.651,00 €	%1,35	- 5.633.999,00 €	-%51,26
Uraren hornidura: Añarbe	4.055.005,00 €	%0,94	3.890.959,00 €	%0,98	- 164.046,00 €	-%4,05
Beste jarduketa ekonomiko batzuk	103.666,00 €	%0,02	111.793,00 €	%0,03	8.127,00 €	%7,84
Kontsumitzailearen informaziorako udal-bulegoa	103.666,00 €	%0,02	111.793,00 €	%0,03	8.127,00 €	%7,84
JARDUKETA OROKORRA	43.283.833,00 €	%10,01	50.425.594,00 €	%12,69	7.141.761,00 €	%16,50
Gobernu organoak	6.061.958,00 €	%1,40	5.337.492,00 €	%1,34	- 724.466,00 €	-%11,95
Udal taldeak	3.574.493,00 €	%0,83	3.831.436,00 €	%0,96	256.943,00 €	%7,19
Gobernu organoak	1.532.184,00 €	%0,35	1.197.731,00 €	%0,30	- 334.453,00 €	-%21,83
Hiri-proiektuak	955.281,00 €	%0,22	308.325,00 €	%0,08	- 646.956,00 €	-%67,72
Administrazio Orokorra	29.639.076,00 €	%6,85	27.060.615,00 €	%6,81	- 2.578.461,00 €	-%8,70
Komunikazioak	808.275,00 €	%0,19	721.489,00 €	%0,18	- 86.786,00 €	-%10,74
Eraikinak	2.074.702,00 €	%0,48	1.854.535,00 €	%0,47	- 220.167,00 €	-%10,61
Informatika	7.581.828,00 €	%1,75	6.821.298,00 €	%1,72	- 760.530,00 €	-%10,03
Ekialdeko Distritua	1.552.234,00 €	%0,36	893.594,00 €	%0,22	- 658.640,00 €	-%42,43
Lehendakaritza	1.243.291,00 €	%0,29	1.183.513,00 €	%0,30	- 59.778,00 €	-%4,81
Agiritegia	737.943,00 €	%0,17	1.798.681,00 €	%0,45	1.060.738,00 €	%143,74
Giza baliabideak	3.329.853,00 €	%0,77	3.321.210,00 €	%0,84	- 8.643,00 €	-%0,26
Idazkaritza nagusia eta lege zerbitzuak	1.181.554,00 €	%0,27	1.374.361,00 €	%0,35	192.807,00 €	%16,32
Barne zerbitzu orokorrak	2.470.699,00 €	%0,57	2.320.066,00 €	%0,58	- 150.633,00 €	-%6,10
Itzulpen bulegoa	416.615,00 €	%0,10	412.355,00 €	%0,10	- 4.260,00 €	-%1,02
Ibilgailuak	842.704,00 €	%0,19	890.511,00 €	%0,22	47.807,00 €	%5,67
Ekipamendu-plana	2.940.216,00 €	%0,68	876.066,00 €	%0,22	- 2.064.150,00 €	-%70,20
Udal Informazio Unitatea	551.698,00 €	%0,13	520.653,00 €	%0,13	- 31.045,00 €	-%5,63
Herritarren parte-hartzea	910.841,00 €	%0,21	1.012.410,00 €	%0,25	101.569,00 €	%11,15
Herritarrenganako arreta	2.248.782,00 €	%0,52	2.377.429,00 €	%0,60	128.647,00 €	%5,72
Zeharkako zerbitzuen koordinazioa	92.486,00 €	%0,02	327.112,00 €	%0,08	234.626,00 €	%253,69
Hauteskundeak	40.000,00 €	%0,01	- €	%0,00	- 40.000,00 €	-%100,00
Ezusteak	615.355,00 €	%0,14	355.332,00 €	%0,09	- 260.023,00 €	-%42,26
Finantza eta zerga-administrazioa	7.582.799,00 €	%1,75	18.027.487,00 €	%4,54	10.444.688,00 €	%137,74
Politika ekonomikoa eta fiskala	3.220.444,00 €	%0,74	13.021.959,00 €	%3,28	9.801.515,00 €	%304,35
Tributu kudeaketa	4.362.355,00 €	%1,01	5.005.528,00 €	%1,26	643.173,00 €	%14,74
ZOR PUBLIKOAK	14.496.943,00 €	%3,35	13.989.028,00 €	%3,52	- 507.915,00 €	-%3,50
Zor publikoa	14.496.943,00 €	%3,35	13.989.028,00 €	%3,52	- 507.915,00 €	-%3,50
Zor publikoa	14.496.943,00 €	%3,35	13.989.028,00 €	%3,52	- 507.915,00 €	-%3,50
GUZTIRA	432.540.636,00 €	%100,00	397.387.617,00 €	%100,00	- 35.153.019,00 €	-%8,13

Kapituluei erreparatuta, nabarmen hazi dira finantza aktiboen 8. kapitulua (% 2760,6) eta langile gastuen 1. kapitulua (% 0,39). Gainerako kapituluek behera egin dute, eta bereziki esanguratsua da 5., 6. eta 7. kapituluek izan duten jaitsiera.

KAPITULUAK	2020		2021		Aldea	
	Total	%	Total	%	Total	%
1. kapitulua. Pertsonal-gastuak	150.787.570,00 €	%34,86	151.377.635,00 €	%35,00	590.065,00 €	%0,39
2. kapitulua. Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	157.862.652,00 €	%36,50	145.461.864,00 €	%33,63	-12.400.788,00 €	-%7,86
3. kapitulua. Finantza-gastuak	2.155.278,00 €	%0,50	1.937.468,00 €	%0,45	- 217.810,00 €	-%10,11
4. kapitulua. Transferentzia arruntak	32.462.702,00 €	%7,51	32.441.318,00 €	%7,50	- 21.384,00 €	-%0,07
5. kapitulua. Kreditu globala eta bestelako ezustekoak	902.855,00 €	%0,21	355.332,00 €	%0,08	- 547.523,00 €	-%60,64
6. kapitulua. Inbertsio errealak	65.320.908,00 €	%15,10	42.630.597,00 €	%9,86	-22.690.311,00 €	-%34,74
7. kapitulua. Kapital-transferentziak	4.143.375,00 €	%0,96	1.797.187,00 €	%0,42	- 2.346.188,00 €	-%56,63
8. kapitulua. Finantza-aktiboak	97.282,00 €	%0,02	2.782.843,00 €	%0,64	2.685.561,00 €	%2760,59
9. kapitulua. Finantza-pasiboak	18.808.014,00 €	%4,35	18.603.373,00 €	%4,30	- 204.641,00 €	-%1,09

6. GASTU ERALDATZAILEAREN ALDAKUNTZAREN JARRAIPENA

2019an egin zen prozesuaren eta zuzenketen emaitza gisa, hainbat hobekuntza jaso ziren prozesuaren 2020ko udal aurrekontuetan, eta, horri esker, gastu eraldatzailearen ehunekoia igo egin zen; hain zuzen ere, gastu horrek lagundu egiten du genero desberdinkeria oinarritzko egiturak hausten, baita desberdinkeria hori eratzen eta birsortzen duten mekanismoak desmuntatzen ere. Gastu eraldatzaileak % 0,51ko pisua izan zuen 2020ko udal aurrekontuaren zenbateko osoan.

GASTU ERALDATZAILEA 2020KO UDAL AURREKONTUETAN						
Atala	1. kap.	2. kap.	4. kap.	6. kap.	GUZTIRA	%/aur. osoa
Berdintasuna	499.993,00	326.381,00	128.000,00	70.000,00	1.004.374,00	0,23%
Lankidetzak			773.748,00		773.748,00	
Gizarte Ekintza	115.000,00	54.460,00			129.460,00	
Hezkuntza programak		51.916,00			51.916,00	
Giza Eskubidea		10.000,00			10.000,00	
Kultur Aniztasuna		10.000,00			10.000,00	
Donostia Kultura		23.000,00			23.000,00	
Musika eta dantza eskola		4.920,00			4920	
Gazteria		25.500,00			25.500,00	
Donostia Kirola		6.735,00			6.735,00	
Udaltzaingoa		3.500,00			3.500,00	
Hiri Mantentze eta Zerbitzuak		25.000,00			25.000,00	
Dbus		12.750,00			12.750,00	
Herri Partaidetza		10.000,00			10.000,00	
Hirigintza				70.000,00		
GUZTIRA	614.993,00	523.562,00	901.748,00	140.000,00	2.220.903,00	% 0,51

● BERDINTASUN PROGRAMA

Berdintasun Programa bere osoan hartzen da gastu eraldatzailetzat, haren kontu sailak osoki erabiltzen baitira udal berdintasun politikak bultzatzeko. 2021ean, programa hau **% 2,7 murriztu da**. Murrizketa 2. kapituluari izan da (62.263,00 euro gutxitu da); 1. kapituluari, berriz, % 4,9 hazi da, eta 6. kapituluari, % 14,3. (Ikus 22. orria).

BERDINTASUNA	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
1. kapitulua	499.993,00	524.535,00	24.542,00	%4,9
2. kapitulua	326.381,00	264.118,00	-62.263,00	-%19,0
4. kapitulua	128.000,00	128.000,00	0,00	%0,0
6. kapitulua	70.000,00	80.000,00	10.000,00	%14,3
GUZTIRA	1.024.374,00	996.653,00	-27.721,00	-%2,7

● LANKIDETZA PROGRAMA

481.01 kontu-saila, kanpoko lankidetzaren proiektuetarako dirulaguntzena, 2020an bezala mantenduko da (773.748 €). Dirulaguntzen deialdi horrek txertatuak ditu berdintasun klausulak. Horrek ziurtatzen du GKEen esku-hartzeak garapenerako lankidetzaren programen erdigunean jarriko dituela emakumeak, pobrezien ondorioak ere emakumeek pairatzen baitituzte gehien.

LANKIDETZA	2020	2021	Aldea	
			Zenbatekoa	%
4. kapitulua	773.748,00	773.748,00	0,00	%0,0

● GIZARTE EKINTZAKO PROGRAMAK

Gizarte ekintzako programen gastu eraldatzailea **%17,5 handitu egin da**, 169.460,00 eurotik 199.173,86 eurora.

GIZARTE EKINTZA	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
1. kapitulua	115.000,00	191.713,86	76.713,86	%66,7
2. kapitulua	54.460,00	7.460,00	-47.000,00	-%86,0
GUZTIRA	169.460,00	199.173,86	29.713,86	%17,5

1. kapituluko gastu eraldatzailea handitu egin da. Alde batetik, gehitu egin dira Genero Indarkeriaren Biktima diren Emakumeei Laguntzeko Zerbitzuak Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak kudeatutako baliabideetarako jartzen dituen profesionalen langile gastuak, 115.000,00 eurotik 176.113,86 eurora. Aurreko urteetan, bi ziren profesionalak. 2021ean hiru pertsonak beteko dituzte eginkizun horiek. Horietako baten soldata Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Itunetik datorren diruarekin finantzatzen da. Bestetik, **15.600 €**-ko kontu-sail bat gehitu da, **langileei indarkeria matxistaren inguruko prestakuntza emateko**: sexu erasoei aurre egitea; adingabeak biktima gisa; kasu konplikatuak gizarte langileekin eta Genero Indarkeriaren Biktima diren Emakumeei Laguntzeko Zerbitzuarekin gainbegiratzea; erreparazioa; prebentzioa eta egoera horretatik atera direnei arreta ematea.

2. kapituluko gastu eraldatzailea 54.460 €-tik 7.460,00 €-ra murriztu da, 1. kapituluan ageri den

igoerarekin harreman zuzena duen murrizketa.

Programen arabera aztertu da 2. kapituluaren aldakuntza:

- Zuzendaritza eta Administrazioa:
 - Berdintasun Planeko ekintzak egiteko kontu-saila (226.09.01) 2020an bezala **mantenduko** da, **2.460,00 €**-an.
- Haurren eta familien prebentzioa:
 - 227.04.02 kontu-saila **indarkeria matxistaren aurkako prebentzio programa** bat egiteko da. Programa horretan, esku-hartze selektiboak egiten dira gizarte zerbitzuek identifikatutako arrisku egoeretan diren adingabekoekin.
 - **Desagertu egin da 2020ko udal aurrekontuaren zuzenketetan sartu zen 201.01 kontu-saila, 40.000,00 eurokoa, indarkeria matxistaren biktimenzako etxebizitzak alokatzeko zena.**
- Gizarteratzea programa:
 - Ez da mantendu 226.09 kontu-saila, 2020an prostituzioaren azterketa tekniko bat egiteko zena.

● HEZKUNTZA PROGRAMAK PROGRAMA

Berdintasuneko **hiru kontu-sail eraldatzaileak % 20 murriztu dira:**

- **Genero indarkeria prebenitzeko programako** kontu-saila (226.99.02) 20.000 eurotik 16.000 eurora murriztu da **(-4.000,00 €)**.
- **Berdintasun Programako** kontu-saila (226.99.01) **5.000 euro** murriztu da, 25.000 eurotik 20.000 eurora.
- Hip Hip Hurri programarako kontu-saila 6.916,00 eurotik 5.533,00 eurora jaitsi da **(-1.383,00 €)**.

HEZKUNTZA PROGRAMAK	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
2. KAPITULUA	51.916,00	41.533,00	-10.383,00	-%20,0

● GIZA ESKUBIDEAK PROGRAMA

226.99.02 kontu-sailean, *Sentsibilizazio eta kontzientziazio programak* izenekoan, ekainaren 28ko kanpainarako diru kopuru bat sartu da. Zenbateko hori **murriztu** egin da 2021erako, 10.000 eurotik 6.000 eurora (-% 40).

GIZA ESKUBIDEAK	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
2. kapitulua	10.000,00	6.000,00	-4.000,00	-40,0%

- [KULTUR ANIZTASUNA PROGRAMA](#)

% 20 murriztu da (-2000,00 €) 226.99.01 kontu-saila, Emakumeen Etxeko *Emakumeen gune interkulturala* topatzeko eta ahalduntzeko gunea dinamizatzeko. Jatorri askotarikoko emakumez osatutako talde bat da, astean behin biltzen dena, migrazio bizipenen berri emateko.

KULTUR ANIZTASUNA	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
2. kapitulua	10.000,00	8.000,00	-2.000,00	-%20,0

- [DONOSTIA KULTURA PROGRAMA](#)

2021ean, Donostia Kulturaren gastu eraldatzailea **23.000 eurotik 187.000 eurora (% 613) igo da**, batez ere San Telmo museoko *Baginen BAGARA* erakusketarako zenbatetsi den kostuaren ondorioz (150.000,00 euro). *Baginen BAGARA* erakusketan, emakumeek museoaren bilduman eta gordailuan egindako lanak ezagutarazi nahi dira, baita haien falta ikusarazi ere.

Beste urte batzuetan bezala, kontu-sail bana jarri da Emakumeen Asterako (martxoaren 8aren inguruan, hau da, Emakumeen Nazioarteko Egunaren inguruan) eta Gure Ahotsak kontzerturako, II. berdintasun plana egin dezaten.

San Telmo museoak emakumeek egindako artelanak ere erosteko asmoa du, baina kuantifikatu gabe zeukaten txosten hau egin genuen.

DONOSTIA KULTURA	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
Berdintasun plana egitea		14.000,00	164.000,00	%613,0
Emakumeen astea	8.000,00	8.000,00		
Gure Ahotsak taldearen kontzertua (martxoaren 7a)	15.000,00	15.000,00		
San Telmo museoa: <i>Baginen BAGARA</i> erakusketa		150.000,00		

- [MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA](#)

Gastu eraldatzailea **4.920 €-tik 5.100 €-ra** igo da (%4).

Kontu-sail hau lotuta dago Eskolako Berdintasun Batzordea hainbat esku-hartze ildoren inguruan garatzen ari den lanari, besteak beste, emakume konpositoreen aintzatespen historikoari (haien lana ikusaraztea, haien ikusezintasunari buruz sentibilizatzea...) eta dantzan eta musika modernoan matrikulatutako ikasleen egungo desoreka konpentsatzeko estrategiei.

MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
Protokoloko eta ordezkartzako arreta (02.226.02)	270,00	600,00	180,00	%4,0
Argitalpenak, publizitatea eta propaganda (02.226.03)	450,00	600,00		
Bilerak eta hitzaldiak (02.226.05)	1.800,00	1.500,00		
Kanpoko enpresetako beste lan batzuk (01.227.99.99)	1.800,00	1.800,00		
Funts bibliografikoak (41.628)	600,00	600,00		

- [GAZTERIA PROGRAMA](#)

226.06.07 kontu-saila (**Gazteen eta nerabeen artean indarkeria sexistaren prebentzioa** sustatzeko programa eta jarduerak) **25.500,00 €-an mantendu da**. Kontu-sail horrekin, besteak beste, indarkeria matxistari buruzko urteko jardunaldiak antolatzen dira, eta *Beldur Barik* kanpaina antolatzen eta bultzatzen da.

GAZTERIA	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
2. kapitulua	25.500,00	25.500,00	0,00	%0,0

- [DONOSTIA KIROLA PROGRAMA](#)

2021ean, 2020ko kontu-sail berberak mantendu dira. Berdintasuneko kontu-sail espezifiko bat sartu da, 4.235,00 €-rena, *Goazen neskek* bideoa egiteko. Bideo horren xedea da eliteko emakume kirolariak ikusaraztea, emakume eta neskei erreferente positiboak eskaintzea eta, hartara, emakumeen kirola sustatzea. Horrez gain, 2.500,00 €-ko beste kontu-sail bat sartu da, Emakumeen Kirolaren ekitaldiko sarietarako.

DONOSTIA KIROLA	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
2. kapitulua	6.735,00	6.735,00	0,00	%0,0

- [UDALTZAINGOA PROGRAMA](#)

500 euro murriztu da Berdintasun Planerako (226.99.04) kontu-sail espezifikoak, udaltzainak indarkeria matxistaren inguruan prestatzekoa. 3.500 eurotik 3.000 eurora jaitsi da.

UDALTZAINGOA	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
2. kapitulua	3.500,00	3.000,00	-500,00	-%14,0

- [HIRI MANTENTZE ETA ZERBITZUAK PROGRAMA: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA](#)

226.99.02 kontu-saila, 2020an 25.000 euroekin hornitu zena **puntu kritikoetarako eta parte hartzeko prozesuak genero ikuspegitik egiteko**, desagertu egin da programa honetatik, eta Berdintasun programaren 6. kapitulura aldatu da.

HIRI MANTENTZE ETA ZERBITZUAK	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
2. kapitulua	25.000,00	0,00	-25.000,00	-%100,0

- [DBUS PROGRAMA](#)

2021ean, **berdintasun plana ezartzeko kontu-saila** mantendu da, kasu honetan **7.000,00 €-koa**. 2020an, kontu-saila handiagoa izan zen, erakundearen plan berria egiteko.

DBUS	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
2. kapitulua	12.750,00	7.000,00	-5.750,00	-%45,0

- [PARTAIDETZA PROGRAMA](#)

Mantendu egin da puntu kritikoen maparako 10.000,00 €-ren kontu-saila (226.99.06 kontu-saila: Partaidetza sektorial-tematikoa).

PARTAIDETZA	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
2. kapitulua	10.000,00	10.000,00	0,00	%0,0

- [HIRIGINTZA PROGRAMA](#)

2020ko udal aurrekontuetan, zuzenketen bidez, 70.000 euroko kontu-sail bat sartu zen 6. kapituluan, Pikabeako eta Oletako irisgarritasuna hobetu eta puntu kritikoak kentzeko. Aurten, **programa honetan** ez da aurreikusten **beste puntu kritiko batzuk prebenitu eta ezabatzeko kontu-sailik**.

HIRIGINTZA	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
6. kapitulua	70.000,00	0.00	-70.000,00	-%100,0

Modu positiboan baloratzen da zuzendaritza eta erakunde batzuek berdintasun politikekin duten konpromisoa, kontuan izanda testuingurua konplexu dela edo programak murriztu zaizkiela. Hori da, esate baterako, Gizarte Ekintza, Lankidetzeta, Gazteria, Donostia Kultura eta Musika eta Dantza Eskolaren kasua.

Bestalde, udal aurrekontuaren ikuspegi orokor batetik, eta ez programen edo zuzendaritzen araberako ikuspegi partzial batetik, zaila da ulertzen zergatik murriztu diren oso handiak ez diren eta genero inpaktu handia duten kontu-sail batzuk. Esate baterako, 9.000,00 euro murriztu dira hezkuntza esparruan berdintasuna sustatzeko eta genero indarkeria prebenitzeko programak, eta 2.000,00 euro gutxitu da topatzeko eta ahalduzko gunearen programa, Kultur Aniztasunak Berdintasun Unitatearekin lankidetzan Emakumeen Etxean sustatzen duena.



- 2020arekin alderatuz murriztu edo kendu diren gastu eraldatzaileko kontu-sailak berreskuratzea.
- Kontu-sailak sortzea beste programa batzuetan (Sustapena, Hirigintza...).

Dena kontuan hartuta, **gastu eraldatzailea % 0,57 da 2021ean.**

GASTU ERALDATZAILEA 2021EKO UDAL AURREKONTUETAN						
Atala	1. kap.	2. kap.	4. kap.	6. kap.	GUZTIRA	%/aurre k. osoa
Berdintasuna	524.535,00	264.118,00	128.000,00	80.000,00	996.653,00	% 0,25
Lankidetzak			773.748,00		773.748,00	
Gizarte Ekintza	191.713,86	7.460,00			199.173,86	
Hezkuntza programak		41.533,00			41.533,00	
Giza Eskubideak		6.000,00			6.000,00	
Kultur Aniztasuna		8.000,00			8.000,00	
Donostia Kultura		164.000,00			164.000,00	
Musika eta Dantza Eskola		5.100,00			5.100,00	
Gazteria		25.500,00			25.500,00	
Donostia Kirola		6.735,00			6.735,00	
Udaltzaingoa		3.000,00			3.000,00	
Dbus		7.000,00			7.000,00	
Herri Partaidetza		10.000,00			10.000,00	
GUZTIRA	716.248,86	548.446,00	901.748,00	80.000,00	2.246.442,86	% 0,57

7. GENERO GARRANTZI HANDIENA DUTEN PROGRAMEN JARRAIPENA

2020ko udal aurrekontuaren txostenean, azterketa zehatzagoa egin zen aurrekontuko 108 programetatik 40tan (% 37), udal aurrekontuaren % 60,5ean. Programa horiek genero aldetik garrantzi handiagoa zutelako hautatu ziren.

Aurreko apartatuan gastu eraldatzailearekin egin dugun bezala, programa horiek COVIDaren testuinguruan mantendu, murriztu edo handitu diren aztertuko dugu, aurrekontua batez beste zenbat murriztu den kontuan hartuta (-% 8,13).


Aztertutako aurrekontu programak	2020		2021		Aldea	
	Guztira	%	Guztira	%	Guztira	%
Udaltzaingoa	24.789.792,00 €	%9,48	23.915.428,00 €	%10,06	- 874.364,00 €	-%3,53
Movilidad vertical	315.000,00 €	%0,12	80.000,00 €	%0,03	- 235.000,00 €	-%74,60
Hiri mugikortasuna	8.775.134,00 €	%3,35	8.931.688,00 €	%3,76	156.554,00 €	%1,78
Hirigintza	16.122.213,00 €	%6,16	11.302.406,00 €	%4,75	- 4.819.807,00 €	-%29,90
Etzegintza	20.609.662,00 €	%7,88	14.955.544,00 €	%6,29	- 5.654.118,00 €	-%27,43
Bide publikoak	2.156.287,00 €	%0,82	1.832.919,00 €	%0,77	- 323.368,00 €	-%15,00
Herri argiteria	4.222.331,00 €	%1,61	3.720.077,00 €	%1,56	- 502.254,00 €	-%11,90
Parke eta lorategiak	7.231.461,00 €	%2,76	6.602.143,00 €	%2,78	- 629.318,00 €	-%8,70
Hondartzak	3.253.704,00 €	%1,24	2.931.830,00 €	%1,23	- 321.874,00 €	-%9,89
Gizarte ongizatea: zuzendaritza eta administrazioa	802.779,00 €	%0,31	801.260,00 €	%0,34	- 1.519,00 €	-%0,19
Gizarte zerbitzuen zentroak	4.119.212,00 €	%1,57	4.245.639,00 €	%1,79	126.427,00 €	%3,07
Lankidetzako eta garapenerako hezkuntza	1.837.288,00 €	%0,70	1.802.014,00 €	%0,76	- 35.274,00 €	-%1,92
Donostia Lagunkoia	98.000,00 €	%0,04	75.000,00 €	%0,03	- 23.000,00 €	-%23,47
Apartamentu tutelatuak	1.699.518,00 €	%0,65	1.740.417,00 €	%0,73	40.899,00 €	%2,41
Gizarte abegi etxea	1.239.682,00 €	%0,47	1.249.364,00 €	%0,53	9.682,00 €	%0,78
Gizarteratzea	3.385.172,00 €	%1,29	4.705.428,00 €	%1,98	1.320.256,00 €	%39,00
Adin txikiko prebentzioa eta familia	3.184.451,00 €	%1,22	3.092.655,00 €	%1,30	- 91.796,00 €	-%2,88
Adineko pertsonen sustapena	359.051,00 €	%0,14	357.180,00 €	%0,15	- 1.871,00 €	-%0,52
Zaharren egoitzak	908.471,00 €	%0,35	908.471,00 €	%0,38	- €	%0,00
Etkez-etxeko laguntza	9.896.937,00 €	%3,78	9.614.992,00 €	%4,04	- 281.945,00 €	-%2,85
Gizarte larrialdietarako laguntzak	2.378.355,00 €	%0,91	2.378.355,00 €	%1,00	- €	%0,00
Berdintasuna	1.024.374,00 €	%0,39	996.653,00 €	%0,42	- 27.721,00 €	-%2,71
Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendua	7.274.350,00 €	%2,78	7.219.681,00 €	%3,04	- 54.669,00 €	-%0,75
Udalaren musika eta dantza eskola	4.500.154,00 €	%1,72	4.907.606,00 €	%2,06	407.452,00 €	%9,05
Heziketarako programak	287.249,00 €	%0,11	243.020,00 €	%0,10	- 44.229,00 €	-%15,40
Giza eskubideak	942.942,00 €	%0,36	890.503,00 €	%0,37	- 52.439,00 €	-%5,56
Kultur aniztasuna	479.775,00 €	%0,18	446.541,00 €	%0,19	- 33.234,00 €	-%6,93
Kulturako administrazio orokorra: Donostia Kultura	30.947.231,00 €	%11,83	26.608.921,00 €	%11,19	- 4.338.310,00 €	-%14,02
Udalaren musika eta datza eskola (Liburutegia)	166.016,00 €	%0,06	156.323,00 €	%0,07	- 9.693,00 €	-%5,84
Udalaren musika eta datza eskola (Txistulariak)	643.801,00 €	%0,25	647.205,00 €	%0,27	3.404,00 €	%0,53
Gazteria	2.631.402,00 €	%1,01	2.296.281,00 €	%0,97	- 335.121,00 €	-%12,74
Kirolak: zuzendaritza eta administrazioa	4.782.845,00 €	%1,83	4.272.605,00 €	%1,80	- 510.240,00 €	-%10,67
Donostia Kirola	3.138.083,00 €	%1,20	2.977.069,00 €	%1,25	- 161.014,00 €	-%5,13
Kirol instalakuntzak (Donostia Kirola)	9.468.893,00 €	%3,62	10.370.602,00 €	%4,36	901.709,00 €	%9,52
Donostia Turismoa	3.876.153,00 €	%1,48	3.326.601,00 €	%1,40	- 549.552,00 €	-%14,18
Donostiako Sustapena	14.173.159,00 €	%5,42	14.506.760,00 €	%6,10	333.601,00 €	%2,35
DBUS	46.609.290,00 €	%17,82	44.849.995,00 €	%18,86	- 1.759.295,00 €	-%3,77
Proiektu eta obrak	1.370.429,00 €	%0,52	1.421.847,00 €	%0,60	51.418,00 €	%3,75
Herritarren parte-hartzea	10.990.650,00 €	%4,20	5.356.651,00 €	%2,25	- 5.633.999,00 €	-%51,26
Aztertutako aurrekontu programak GUZTIRA	910.841,00 €	%0,35	1.012.410,00 €	%0,43	101.569,00 €	%11,15
GUZTIRA	261.602.137,00 €	%100,00	237.750.084,00 €	%100,00	- 23.852.053,00 €	-%9,12
AURREKONTU OSOAREN %a	60,5%		59,8%			

2021ean, hazi egin dira programa horietatik 11 (% 27,5), zenbateko berarekin mantendu dira 2 (% 5), eta jaitsi egin dira gainerako 27 programak (% 67,5). Horien artean, 13 programa (% 32,5) udal aurrekontuak batez beste jaitsi diren (-% 8,13) baino gutxiago jaitsi dira, eta 14 (% 35) gehiago.

Guztira, 2021eko udal aurrekontuaren % 59,8 dira programa horiek.

IGO DIRA	EZ DIRA ALDATU
----------	----------------

<ol style="list-style-type: none"> 1. Udalaren Musika eta Dantza Eskola (txistulariak eta Emusik2016). (% 0,53) 2. Abegi etxea (% 0,78) 3. Hiri mugikortasuna (% 1,78) 4. Sustapena SA (% 2,35) 5. Tutoretzapeko apartamentuak (% 2,41) 6. Gizarte zerbitzuguneak (% 3,07) 7. Hiri mantentze eta zerbitzuak: Zuzendaritza eta administrazioa (% 3,75) 8. Musika eta Dantza Eskola (% 9,05) 9. Kirol instalazioak (Donostia Kirola). (% 9,52) 10. Herri partaidetza (% 11,15) 11. Gizarteratzea (% 39,00) 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Zaharren egoitza (% 0,00) 2. Gizarte larrialdietarako laguntzak (% 0,00)
BATEZ BESTEKOA BAINO GUTXIAGO JAITSI DIRA	BATEZ BESTEKOA BAINO GEHIAGO JAITSI DIRA
<ol style="list-style-type: none"> 1. Gizarte Ekintza: Zuzendaritza eta administrazioa (-% 0,19) 2. Adinekoen sustapena (-% 0,52) 3. Hezkuntza zentroyen funtzionamendua (-% 0,75) 4. Garapenerako lankidetzeta eta hezkuntza (-% 1,92) 5. Berdintasuna (-% 2,71) 6. Etxez etxeko laguntza (-% 2,85) 7. Prebentzioa, haurtzarora eta familia (-% 2,88) 8. Udaltzaingoa (-% 3,53) 9. DBUS (-% 3,77) 10. Donostia Kirola (-% 5,13) 11. Giza Eskubideak (-% 5,56) 12. Udalaren Musika eta Dantza Eskola (Liburutegia). (-% 5,84) 13. Kultur aniztasuna (-% 6,93) 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Parke eta lorategiak (-% 8,70) 2. Hondartzak (-% 9,89) 3. Kirola: Zuzendaritza eta administrazioa (-% 10,67) 4. Argiteria publikoa (-% 11,90) 5. Gazteria (-% 12,74) 6. Kulturako administrazio orokorra: Donostia Kultura (-% 14,02) 7. Donostia Turismoa (-% 14,18) 8. Bide publikoak (-% 15,00) 9. Hezkuntza programak (-% 15,40) 10. Donostia Lagunkoia (-% 23,47) 11. Etxebizitza (-% 27,43) 12. Hirigintza (-% 29,90) 13. Proiektu eta obrak (-% 51,26) 14. Mugikortasun bertikala (-% 74,60)



7.1. Babes eta sustapen sozialeko jarduketak

● BERDINTASUNA

Gastu eraldatzaileari buruzko atalean adierazi dugun bezala, **Berdintasun programa**, *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartua, kasu berezia da, ia aurrekontuaren % 100 erabiltzen baita modu batean edo bestean emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko.

Berdintasunerako programa espezifiko bat badagoenez, betetzen da Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 14. artikuluan ezartzen duen agindua:

<<Administrazio autonomiko, foral eta lokalek, urtero, lege honetan jasotzen diren eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan>>.

Programa hau 996.653,00 €-koa da 2021ean. 2020arekin alderatuz (1.024.374,00 €), % 2,7 murriztu da (27.721,00 €), eta udal aurrekontuaren % 0,25 dagokio; 2020an, % 0,24 zegokion.

BERDINTASUNA	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
1. kap.	499.993,00	524.535,00	24.542,00	%4,9
2. kap.	326.381,00	264.118,00	-62.263,00	-%19,0
4. kap.	128.000,00	128.000,00	0,00	%0,0
6. kap.	70.000,00	80.000,00	10.000,00	%14,3
GUZTIRA	1.024.374,00	996.653,00	-27.721,00	-%2,7

Kapitulukako banakatzeari dagokionez, 1. kapitulua % 4,9 hazi da. Kapitulu honi dagokionez, esan behar da hurrengo urteetan handitu egin behar dela kontu-sail hori, **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren 3.3 neurrian** jasoa: *Berdintasun Unitateko langileen beharra diagnostikatzea. Unitatea zabaltzea edo berdintasun aldetik erreferente izango diren atalak sor daitezkeen baloratzea.*

Lehenago esan bezala, **Berdintasun programaren jaitziera 2. kapituluan kontzentratu da; zehazki, 62.263,00 murriztu da.**

Kapitulu honetako kontu-sailik garrantzitsuena (226.99 kontu-saila) berdintasuneko udal politika sustatzeko jardueretarako da. Horren barruan, **emakumeak ahalduntzeko eta indarkeria sexistaren aurkako ekintzetarako gastua nabarmentzen da. Kontu-sail hori murriztu egin da 2021ean, 224.430,00 eurotik 198.180,00 eurora pasatu baita (-% 11,7).** Desagertu egin da 226.99.04 kontu-saila, hiriko puntu kritikoak hobetzeko partaidetza prozesurako dena (8.200,00 €), eta kontu-sail hauek, berriz, murriztu: 226.99.01 (-3.000,00 €), 226.99.02 (-3,000 €) eta 226.99.03 (-12.050,00 €).

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
226.99	Eraldatze feministarako jarduerak	224.430,00
226.99.01	Indarkeria sexistaren aurkako ekintzak	77.000,00
226.99.02	Ikerketa lana eta prestakuntza	3.000,00
226.99.03	Emakumeen ahalduntzea	100.680,00
226.99.04	Partaidetza prozesua hiriko puntu kritikoak hobetzeko	8.200,00
226.99.05	Erantzukidetasuna eta zaintza lantzeko ekintzak	2.500,00
226.99.07	IV. Berdintasun Plana ezarri eta sistematizatzea	15.000,00

4. kapitulua berdín mantendu da, giltzarri diren bi aurrekontu partida dituela; lehenengoan emakumeen elkarreentzako eta berdintasuna sustatzen duten elkarre mistoentzako dirulaguntzak sartzen dira, eta, bigarrenean, Emakumeen Etxea mantentzeko lanak, hitzarmen baten eta 46.000 euroko partida baten bidez.

6. kapituluan 10.000,00 € gehiago daude; izan ere, 70.000 eurotik 80.000 eurora pasatu da. Bi partida aurreikusten ditu: 601a, hiriko zenbait puntu kritiko hobetzeko dena (60.000,00 €), eta 622a, Emakumeen Etxea mantentzeko dena (20.000,00 €).

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
601	Erabilera orokorreko azpiegitura eta urbanizazioa	60.000,00
622	Zerbitzuetarako eraikinak eta bestelako eraikuntzak	20.000,00
	6. kapitulua, GUZTIRA	80.000,00

DONOSTIAKO EMAKUMEEN ETXEA

Emakumeen Etxea emakume askoren eta askotarikoen topaketarako, prestakuntzarako, pentsamendurako eta ekintzarako toki bat da, eta mugimendu feministak eta Donostiako Udalaren berdintasun departamentuak era mistoan eta partekatuan kudeatuta antolatzen da. Oinarrizko eta funtsezko ekipamendua da hirian, eta egun 1.500 bazkide ditu.

Donostiako Udalak 285.950,99 euroko ekarpen ekonomikoa egingo dio Etxeari.

Adierazi behar da 4. puntuan (*Eraikina mantentzea*) datorren gastu arrunta Berdintasun Unitateari dagokiola eta modu positiboan eragiten diola horrek Donostiako Emakumeen Etxeari, espazio berean kokatuak dauden aldetik.

1. Emakumeen Etxea Elkartearekin hitzarmena	
Hitzarmena Emakumeen Etxea espazioa dinamizatzeko arratsaldetan	46.000,00 €
2. Pertsonala	
Bi udal langile, bat lanaldi osoan eta bestea lanaldi erdian	83.245,62 €
3. Ikastaroak, ahalduzko taldeak eta zerbitzuak	
Autodefentsa ikastaroak	4.989,90 €
Mujeres por una vida libre de violencia	9.039,00 €
Kultura aniztasuneko taldea	8.855,00 €
Literatura taldeak: Iratxe Retolaza eta Ventaneras	4.800,00 €
Etxeko langileen aholkularitza zerbitzua	4.950,00 €
Lege aholkularitza	4.950,00 €
Aholkularitza juridiko eta gizarte esku-hartzea	4.950,00 €
Biluzik Mundura – Sexualitate eta genero aholkularitza	7.425,00 €
Norbanakoaren jabeakuntzarako gunea	9.900,00 €
Gizarte aholkularitza	3.190,00 €
“Iguálate” ikasketak homologatzeko zerbitzua	7.425,00 €
Aholkularitza laguntza taldea	3.465,00 €
Aniztasun funtzionala duten emakumeen taldea	9.900,00 €
Mugimendua eta gorputza	1.249,00 €
Empalabramiento	1.540,00 €
4. Eraikinaren mantenua eta mobiliarioa	
Gastu korronea (telefonoa, garbiketa, fotokopiak, argindarra, komunitatea, konponketa txikiak)	47.733,24 €
Obrak: ateko koska kentzea, berdintasuneko bulegoan espazioa egokitzea, lehenengo pisuko leihoak aldatzea, sotoko biltegiko sabaia konpontzea.	15.553,73 €
5. Komunikazioa	
Argazkiak eta bideoa	1.939,00 €
Egitarrak: diseinua, maketazioa eta inprenta	4.009,92 €
Urteko memoriaren argitalpena: diseinua eta maketazioa	4.851,50 €
GUZTIRA	289.960,91 €

Gaur egun, **inoiz baino beharrezkoagoa da Emakumeen Etxerako espazio berri bat izatea**, sarbide errazekoa eta zerbitzu eta jardueretarako instalazio egokiak izango dituen. Gaur egungo espazioak ez du uzten Etxearen zerbitzuak edo jarduerak eskatzen dituzten emakumeei arreta baldintza egokietan ematen. 2. kapituluari jasotako partidarekin, hori ezin da egin. **Premia horrek lotura zuzena du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planaren 4. proiektu-emaitzarekin: *Emakumeen Etxe handiago, askotarikoago eta koordinatuago bat.***

- 2. kapituluako gastua berreskuratzea.
- Inbertsioen kapituluari sartzea Emakumeen Etxerako toki berrirako inbertsioak.



● GARAPENERAKO LANKIDETZA ETA HEZKUNTZA

Garapenerako lankidetzeta eta hezkuntza programa, *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartua, 1.802.014,00 € da 2020an, **udal aurrekontuaren % 0,45**. 2020an, programaren zenbatekoa 1.837.288,00 eurokoa izan zen (aurrekontuaren % 0,42); beraz, **% 1,92 jaitsi da**.

LANKIDETZA	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
1. kap.	203.733,00	213.236,00	9.503,00	%4,7
2. kap.	146.175,00	117.250,00	-28.925,00	-%19,8
4. kap.	1.487.380,00	1.471.528,00	-15.852,00	-%1,1
GUZTIRA	1.837.288,00	1.802.014,00	-35.274,00	-%1,9

2. kapituluan izan da jaitsierarik handiena, **28.925,00 € jaitsi baita (-% 19,8)**.

226.99 kontu-saila, garapenerako lankidetzaren eta hezkuntzaren arloan sentibilizatzeko programetarako dena, **109.350,00 eurotik 87.950,00 eurora jaitsi da (-% 19,6)**. Donostia Munduen Artean genero aldetik duen garrantziagatik nabarmentzen da. 30.000 eurotik 19.000 eurora jaitsi da (% 36,7).

Programa honetako gasturik garrantzitsuena dago, **1.471.528,00 €** gorde baitira **lankidetzako eta garapenerako proiektuak sustatzeko diru laguntza eta hitzarmenentarako**. 15.852,00 €-ko murrizketa 481.03 (-14.485 €) eta 481.05 (-1.367 €) partidetan kontzentratzen da.

Kontu-saila	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
481.01	Lehia libreko lankidetzeta dirulaguntzak	773.748,00
481.02	GEH Dirulaguntzak lehiaketa librea	331.607,00
481.03	Dirulaguntza zuzenak	156.463,00
481.04	Dirulaguntza Euskal Fondoari	158.738,00
481.05	Ekintza humanitariorako eta larrialdikoentarako zuzeneko dirulaguntzak	50.972,00
	4. kapitulu a, guztira	1.471.528,00

Garapenerako Lankidetzeta da bere jardueran genero ikuspegia gehien eta ondoen sartua duen programetako bat; izan ere, hori kudeatzen duen zuzendaritzak giza garapen sostengagarriko lankidetzeta eta heziketa plan gidari bat du, eta, hor esaten denez, genero ekitatea da printzipio gidarietako bat, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna, berriz, zeharkako ildo bat.

● DONOSTIA LAGUNKOIA

Donostia Lagunkoia programa *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartuta dago, eta 2021ean 75.000,00 € daude programa horretarako; 2020an, 98.000,00 € zeuden, eta, beraz, 23.000,00 gutxitu da (-% 23,47). Programa osoa ondasun arruntetako eta zerbitzuetako

gastua da (2. kapitulua).

DONOSTIA LAGUNKOIA	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
2. kapitulua	98.000,00	75.000,00	-23.000,00	-%23.47
GUZTIRA	98.000,00	75.000,00	-23.000,00	-%23.47

Murrizketa kontu-sail hauetan egin da: 226.03 (-16.000 €), 226.10 (-4.000 €) eta 226.99.01 (-3.000 €).

Partida	Gastuaren azalpena	Zenbatekoa
226.03	Publizitatea eta propaganda	18.000,00
226.07	Laguntza teknikoa Lkaleak	15.000,00
226.10	Kanpoko enpresek egindako aparteko lanak	12.000,00
226.99.01	Garapena eta laguntza teknikoa	30.000,00

Donostia Lagunkoia Donostiako Udalak sustatzen duen hiri plan bat da, eta arreta jartzen du biztanleriaren zahartzeak hiri bizitzako arlo guztietan planteatzen dizkigun erronketan. **Hainbat proiektu eta jarduera biltzen ditu. Haien helburu orokorra da hiriaren lagunkoitasuna hobetzea eta, horri esker, adineko pertsonen bizi kalitatea ere hobetzea**, baita Donostiako gizarte osoarena ere, komunitatearen partaidetza prozesuak sortuz, horrelako pertsonen duten gaitasun handia hiriko bizitzan txertatu nahian.

Donostia Lagunkoia 4 ardatzak hauek dira: Espazio publiko integratzailea eta mugikortasun seguru eta irisgarria; Etxebizitza bizitza osorako; Zaintzen duen komunitate bat; Bizitza ziklo berri bateranzko trantsizioa eta adinaren kudeaketa.

Programa garrantzitsua da generoaren ikuspegitik, adinekoetan duen eraginarengatik; izan ere, horien artean emakumeak dira gehiengoa, eta zaintzaren eta adinekoen partaidetzarekin duen erlazioarengatik. Haren garrantzia are handiagoa da gaur egungo testuinguruan; izan ere, haren xede publikoa egoerarik zaurgarrienean eta gehien sufritzen ari den kolektiboetako bat da. Printzipio gidari dute berdintasuna.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planean, 6. proiektu-emaitzan (Indarkeria Matxistaren Erabateko Prebentzioa) du erantzukizuna (6.4 neurria. Adineko emakumeentzako dauden programetan sentsibilizazio espazioak sortzea) eta 8.ean, *Kalitatezko zaintzak eta enpleguak* izenekoan (8.2. neurria. *Zaintzari buruzko hausnarketa bultzatzea* eta 8.5. *Belaunaldien arteko proiektua martxan jartzea eguneroko bizitzarekin lotutako talentua azalertzeko*).



– 2. kapituluko gastua berreskuratzea.

- **GIZARTE EKINTZA: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA**

Gizarte Ekintza programa: Zuzendaritza eta Administrazioa programa, *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartua, 1.519,00 € (-% 0,19) gutxitu da 2021ean, eta guztira 801.260,00 € daude, **udal aurrekontuaren % 0,20**.

GIZARTE EKINTZA: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
1. kapitulua	481.147,00	516.922,00	35.775,00	%7,4
2. kapitulua	32.352,00	29772,00	-2.580,00	-%8,0
4. kapitulua	289.280,00	254.566,00	-34.714,00	-%12,0
GUZTIRA	802.779,00	801.260,00	-1.519,00	-%0,2

1. kapitulua % 7,4 igo da, eta 2. kapitulua eta 4. kapitulua, berriz, % 8 eta % 12, hurrenez hurren.

4. kapituluan, 481.01 kontu-saila, **beren jarduera gizarte ekintzaren arloan egiten duten irabazi asmorik gabeko elkarreentzako dirulaguntzak** ematekoa, 280.000 eurotik 246.000 eurora gutxitu da (-33.600 euro). **Elkarte eta proiektu horiek eragin zuzena dute zaintzei dagokienez eta, beraz, genero garrantzi handia.**



- 481.01 partidako gastua berreskuratzea.

● GIZARTE ZERBITZUGUNEAK

Gizarte Zerbitzuguneak programa, *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartua, 4.245.639,00 € da 2021ean, udal aurrekontuaren **% 1,07**. 2020an, 4.119.212,00 euro izan zituen (aurrekontuaren % 0,95); beraz, 126.427,00 euroko (% 3,07) igoera izan du.

GIZARTE ZERBITZUGUNEAK	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
1. kapitulua	3.711.135,00	3.842.776,00	131.641,00	%3,6
2. kapitulua	408.077,00	402.863,00	-5.214,00	-%1,3
GUZTIRA	4.119.212,00	4.245.639,00	126.427,00	%3,1

Funtsezko programa da Gizarte Ekintzako udal politiketarako, haren izateko arrazoia; izan ere, horren barruan biltzen da gizarte zerbitzuguneetako langileen gastua, eta horiexek dira gizarte zerbitzuen euskal sisteman sartzeko atea.

Krisi egoera honetan, modu positiboan baloratzen da genero ikuspegitik garrantzitsua den partida hori handitzeko ahalegina.

● HAURREN ETA FAMILIEN PREBENTZIOA

Haurren eta Familien Prebentzioa programa *Gizarte zerbitzuak eta sustapen soziala* gastu politikan jasota dago, eta 3.092.655,00 euro izango ditu 2021ean, udal aurrekontuaren **% 0,78, 2020an baino 91,796 euro gutxiago**, 3.104.732,83 eurokoa baitzen partida (aurrekontuaren % 0,74).

GIZARTE ZERBITZUGUNEAK	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
1. kapitulua	582.408,00	573.580,00	-8.828,00	-%1,5
2. kapitulua	2.602.043,00	2.519.075,00	-85.968,00	-%3,2
GUZTIRA	3.184.451,00	3.092.655,00	-91.796,00	-%2,9

1. eta 2. kapituluak behera egin dute 2021ean. 2. kapituluaren kasuan, jaitsiera 85.968,00 €-koa da.

Kontratu soziokulturalak (227.04) partidak funtsezko zenbait kontratu publiko biltzen ditu: esku-hartze goiztiarrarena (kasuak detektatzeko programa bat da), talde psikosozial eta sozioedukatioarena (bolumen handiena du) (1.433.333,00 €), eta gazteen artean droga kontsumoaren eta mendekotasun digitalen **prebentzioarekin lotutako bi kontratu (227.04.01 partida); azken horietan dago jaitsieraren parte handi bat (-82.185,00 €).**

Programaren gastua, adikzioen planen arduradura Osasun Sailera pasatu delako murriztu da. Hau da, udalari ez dio gastua murriztea eragin, programa batetik bestera gastua aldatzea baizik.

Kontu-saila	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
227.04	Kontratu soziokulturalak	2.438.941,00
227.04.01	Adikzioen tokiko planeko neurriak	4.500,00
227.04.02	Indarkeria matxistaren aurkako prebentzio plana	5.000,00
227.04.05	Arreta sozioedukatio eta psikosozialaren zerbitzua	1.443.333,00
227.04.09	Prestakuntza, aholkularitza eta esku-hartze goiztiarra	986.108,00

● ADINEKOAK SUSTATZEA

Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena gastu politikan sartutako **Adineko Pertsonen Sustapena** programaren bidez, Gizarte Ekintzaren Zuzendaritzak laguntza ematen die udal ekipamenduetan edo ekipamendu propioetan jarduten duten adinekoen elkarteei.

2021ean, programak **357.180,00 €**-ra egin du behera, eta **udal aurrekontuaren % 0,09** da. Zenbateko hori 2020an baino 1.871 euro gutxiago da, orduan 359.051,00 € baitzen, guztizkoaren % 0,08.

ADINEKOAK SUSTATZEA	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
1. kapitulua	54.256,00	55.536,00	1.280,00	%2,60
2. kapitulua	276.685,00	276.907,00	222,00	%0,1
4. kapitulua	28.110,00	24.737,00	-3.373,00	-%12,0
GUZTIRA	359.051,00	357.180,00	-1.871,00	-%0,5

● ADINEKO PERTSONENTZAKO EGOITZAK

Adinekoentzako Egoitzak programarako **908.471,00 euroren** kontu-sail bat dago 2. kapituluan, Zorroaga Fundazioari zuzendua, adineko autonomoei ostatu eta arreta zerbitzua emateko bizitoki ekipamenduetan.

Kontu-sail hori 2020ko aurrekontuetan jasotakoaren berdina da.

ADINEKO PERTSONENTZAKO EGOITZAK	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
2. kapitulua	908.471,00	908.471,00	0,00	%0,0
GUZTIRA	908.471,00	908.471,00	0,00	%0,0

● TUTORETZAPEKO APARTAMENTUAK

Tutoretzapeko apartamentuak programa, *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartua, 1.740.417,00 € da 2021ean, udal aurrekontuaren % 0,44. 2020an, zenbatekoa 1.699.518,00 euro izan zen, aurrekontuaren % 0,39; beraz, **40.899,00 euro igo da (% 2,41)**.

Programa hau adineko autonomoentzako etxebizitza sozialen mantentze gastuei buruzkoa da.

TUTORETZAPEKO APARTAMENTUAK	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
1. kapitulua	168.670,00	179.547,00	10.877,00	%6,45
2. kapitulua	1.489.848,00	1.524.790,00	34.942,00	%2,3
4. kapitulua	41.000,00	36.080,00	-4.920,00	-%12,0
GUZTIRA	1.699.518,00	1.740.417,00	40.899,00	%2,4

● ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA

Etxez Etxeko Laguntza programa, *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartua, **281.945,00 €** murriztu da 2021ean (**-% 2,85**), 9.896.937,00 eurotik (aurrekontuaren % 2,29) 9.614.992,00 eurora (% 2,42) igaro baita.

Zerbitzu hori etxean bertan ematen da, zaintza pertsonalaren eta etxearen zaintzan laguntzeko. Lanak egiteko edo zaintzeko zailtasunen bat duten norbanakoentzat eta familientzat da, baita zaintzaileari atsedean emateko ere.

Genero ikuspegitik, funtsezko zerbitzua da; izan ere, alde batetik, zaindutako pertsonengan eragiten du, kalitateko zerbitzu bat baitaukate; bestetik, langileengan; eta, hirugarrenik, ELZk egin ezean lan horiek egin beharko lituzketen pertsonengan; kasu askotan, etxeko eremuan eta ordainsaririk gabe egin beharko lituzkete. Hiru kasuetan, emakumeak dira gehiengoa.

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
1. kapitulua	100.561,00	107.648,00	7.087,00	%7,1
2. kapitulua	9.796.376,00	9.507.344,00	-289.032,00	-%3,0
GUZTIRA	9.896.937,00	9.614.992,00	281.945,00	-%2,9

2020an, programa honen 2. kapitulua 9.796.376,00 € izan zen, eta 2021ean 9.507.344,00 €-ra murriztu da. Jaitsiera hori lotuta dago koordainketa tarterik handienetan izan diren aldaketekin, eta baita mendekotasun edo premiaren bat duten pertsonen **Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua** (ELZ) emateko kontratuaren finantza kalkuluan izandako aldaketa batekin ere. Hori da programa honetako 2. kapitulu ia osoa: 227.21.01 partida, eta 9.792.876,00 €-tik 9.497.344,00 €-ra (-295.532,00 €) jaitsi da.

COVID KRISIAREN BEHATOKIA

ELZren erabiltzaileak 1.364 gutxiago izan ziren 2020ko urtarrilean, eta 1.275 gutxiago urte horretako urrian (**-% 6,5**).

● GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK

Gizarte Larrialdietarako Laguntzak programa, *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartua, **2.378.355,00 €** da 2021ean, **udal aurrekontuaren % 0,60**.

GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
4. kapitulua	2.378.355,00	2.378.355,00	0,00	%0,0
GUZTIRA	2.378.355,00	2.378.355,00	0,00	%0,0

Gizarte Larrialdietarako Laguntzen bidez, aldizkakoak ez diren dirulaguntzak ematen zaizkie ohiko nahiz ezohiko gastu zehatzei aurre egiteko adina baliabiderik ez duten pertsonei, gizarte bazterketari aurre egiteko edo bazterketa hori prebenitu, saihestu edo arintzeko.

COVID KRISIAREN BEHATOKIA

2020eko urtarriletik urrira bitartean, 17.995 pertsonak jaso zituzten Gizarte Larrialdietarako Laguntzak, 2.629.742 € guztira. Hazkunde esponentziala izan zen lehen hilabeteetan: 378 laguntza urtarrilean, eta 2.124 urrian.

● ABEGI ETXEA

Abegi Etxea programa, *Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena* gastu politikan sartua, 1.249.364,00 € da 2021ean, udal aurrekontuaren % 0,31. Beraz, **9.682,00 euro** igo da (**% 0,78**) 2020arekin alderatuz, orduan 1.239.682,00 € baitzen (aurrekontuaren % 0,29).

ABEGI ETXEA	2020	2021	Zenbatekoa	
			Cantidad	%
1. kapitulua	790.602,00	805.848,00	15.246,00	%1,90
2. kapitulua	449.080,00	443.516,00	-5.564,00	-%1,2
GUZTIRA	1.239.682,00	1.249.364,00	40.899,00	3,30%

2. kapituluan, **Mons pasealekuan kokatuta dagoen etxegabeentzako abegi etxea mantentzeko gastuak** sartzen dira. Abegi etxeak 40 plaza ditu, eta etxegabeek gehienez hiru gau igaro ditzakete bertan. "Eskakizun txikiko" zentro bat da, hau da, erabiltzaileek ez dute baldintzarik bete behar, baina esku-hartze sozialik ere ez da egiten eta erabiltzaile gehienak gizonak dira.

Donostiako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planean, 7.4 neurrian, *Erreparazio integralaren* 7. proiektu-emaitzaren barruan, emakumeentzako baliabide espezifikoak eta seguruak eskaintzeko beharra jasotzen da. Behar hori areagotu egin da osasuna babesteko eskakizun bereziko egoera honetan.

● GIZARTERATZEA

Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena gastu politikan sartutako **Gizarteratzea** programa **1.320.256,00 euro** igo da 2021ean (**% 39**). 2020an, 3.285.172,00 € zeuden (udal aurrekontuaren % 0,78), eta orain 4.705.428,00 €. Aurrekontu proposamenean egin den igoerarik handienetakoa da.

GIZARTERATZEA	2020	2021	Diferentzia	
			Cantidad	%
1. kapitulua	461.948,00	493.533,00	31.585,00	%6,8
2. kapitulua	2.169.372,00	2.220.830,00	51.458,00	%2,4
4. kapitulua	753.852,00	991.065,00	237.213,00	%31,5
6. kapitulua	0,00	1.000.000,00	1.000.000,00	%100,0
GUZTIRA	3.385.172,00	4.705.428,00	1.320.256,00	%39,0

Kapitulu guztiak handitu badira ere, igoeraren zati handi bat 6. kapituluan dago, 1.000.000,00 € euroren inbertsio bat jaso baita *Zerbitzuetarako eraikinak eta beste eraikuntza batzuk* atalean, Villa Salia egokitzeko obretarako, Hestia eguneko zentroa eta haurrentzako programak garatzeko.

Gizarte Ekintzako beste aurrekontu programa batzuekin gertatzen den bezala, zerbitzua ematen duten udal langileak dira zerbitzu honen gakoa; eskaintzen dituzten baliabideak, berriz, beste erakunde edo beste udal zerbitzu batzuetatik datoz, gehien-gehienak.

Gizarteratzeko funtsezko zerbitzu bat **gizarteratzeko eta laneratzeko diagnostikoak eta baliabideak** dira. Diagnostiko soziolaboral pertsonalizatuak gizarte zerbitzuguneetan egiten dira. Diagnostikoa egitea da ibilbide soziolaborala osatzeko lehen urratsa. Ibilbide horien barruan, Donostia Sustapenarekin lankidetzan, prestakuntzako edo laneko baliabideak eskaintzen dizkiete pertsona zaugarrienei.

Gaur egungo krisiak kolektibo zaugarrienen zailtasuna areagotu dezake: Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren onuradunak, 45 urtetik gorako langabeak, gazteak, desgaitasunen bat duten pertsonak, pertsona migratzaileak. Hala, are funtsezkoago dira bai zerbitzu hau eta bai enplegua lortu aurreko askotariko enplegu programak (Elkarrekin, Aurrera, Bidean, Emakumeen Tailerra...).

COVID KRISIAREN BEHATOKIA

2020ko azaroan, 3.536 pertsonak jasotzen zuten Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta, 2.150 emakumek (% 60,8) eta 1.386 gizonak (% 39,2). Urte horretako urtarrilean, 3.347 pertsonak, horietatik 2.076 emakumeak (% 62) eta 1.271 gizonak (% 38). Hartzaileen kopurua % 6 handitu da; gizonen kasuan % 9, eta emakumeen kasuan % 4.

7.2. Lehentasunezko ondasun publikoen ekoizpena

● IKASTETXEEN FUNTZIONAMENDUA

Ikastetxeen Funtzionamendua programa, *Hezkuntza* gastu politikan sartua, 7.219.681,00 € da 2021ean, udal aurrekontuaren % 1,82. 2020an, partida honetarako 7.274.350,00 euro esleitu ziren, hau da, udal aurrekontuaren % 1,68. Beraz, **54.669,00** euroren **murrizketa** izango du (**-% 0,75**).

IKASTETXEEN FUNTZIONAMENDUA	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
1. kapitulua	1.787.507,00	1.688.841,00	-98.666,00	-%5,5
2. kapitulua	5.116.843,00	5.214.840,00	97.997,00	%1,9
6. kapitulua	370.000,00	316.000,00	-54.000,00	-%14,6
GUZTIRA	7.274.350,00	7.219.681,00	-54.669,00	-%0,75

Kapituluka, 2. kapituluak gora egin du, eta behera egin dute 1. kapituluak (langileen gastuak), 98.666,00 €, eta 6. kapituluak (inbertsio errealak), 54.000 €.

Ikastetxeen Funtzionamendua programaren barruan sartzen dira sare publikoko lehen hezkuntzako eta haur hezkuntzako eskola eraikinen mantentze lanak; besteak beste, bere gain hartzen ditu eraikin guztien garbiketa gastuak (3.624.393,00 €-tik 3.884.220,00€-ra igo dira), bai eta horien elektrizitate, gas, konponketa eta obra gastuak.

Kontu-saila	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
643	Ikerketak, azterlanak eta proiektuak	20.000,00
622	Zerbitzuetarako eraikinak eta bestelako eraikuntzak	296.000,00
	6. kapitulua, guztira	316.000,00

6. kapituluan, 643 kontu-saila, 20.000,00 €-rena, Orixe Ikastola LHren (Zuloaga) Aldamar kaleko fatxada birgaitzeko proiektua idazteko erabiliko da, eta 622 kontu-saila, 296.000,00 €-rena, ikastetxeak hobetzeko (Eusko Jaurlaritzarekin):

- Orixe Ikastola LHren (Zuloaga) Aldamar kaleko fatxada zaharberritzeko proiektua gauzatzea: 140.000,00 €.
- Amara Berri LHko (Robledal, 15) estalkia berritzeko eta urbanizazio obrak egiteko proiektua, oinezkoen segurtasuna bermatzeko: 156.000,00 €.

Ez da aurreikusten hezkidetzarako jolastokitan inbertitzea. Hori oso garrantzitsua da generoaren ikuspegitik, eta sartuta dago Udalaren Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Planean: *5.2 neurria. Hezkidetzarako patioak. Ikastetxeetako patioetan Udalak hobekuntzak eta mantenu lanak egiten dituenean, genero ikuspegia txertatzea (beste espazio batzuk sortu: txoko lasaiak, berdeak, baratzea, kirol praktika anitzak egitekoak...).*



– Partida zehatzbat esleitzea hezkidetzarako jolastokietarako.

● HEZIKETARAKO PROGRAMAK

Heziketarako Programak programa, *Hezkuntza* gastu politikan sartua, **44.229,00 € gutxitu da 2021ean (-% 15,40)**. 2020an, 287.249,00 € zen, udal aurrekontuaren % 0,07, eta orain 243.020,00 €-ra jaitsi da (% 0,06).

HEZIKETARAKO PROGRAMAK	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
1. kapitulua	54.693,00	56.251,00	1.558,00	%2,8
2. kapitulua	71.000,00	57.740,00	-13.260,00	-%18,7
4. kapitulua	161.286,35	129.029,00	-32.257,35	-%20,0
GUZTIRA	287.249,00	243.020,00	-44.229,00	-%15,4

● GIZA ESKUBIDEAK

Giza Eskubideak programa, *Hezkuntza* gastu politikan sartua, **52.439 euro gutxitu da 2021ean (-% 5,56)**. 2020an, 942.942,00 € zen, eta orain 809.503,00 € da, udal aurrekontuaren % 022.

Kapituluka, langileen gastuak % 26,6 igo dira, eta murriztu egin dira 2. eta 4. kapituluak, % 15,6 eta % 20, hurrenez hurren.

GIZA ESKUBIDEAK	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
1. kapitulua	236.350,00	299.317,00	62.967,00	%26,6
2. kapitulua	595.366,00	502.206,00	-93.160,00	-%15,6
4. kapitulua	111.226,00	88.980,00	-22.246,00	-%20,0
GUZTIRA	942.942,00	809.503,00	-52.439,00	-%5,6

2. kapituluaren barruan sartuta daude oroimen historikoa berreskuratzeko partida, bakean eta Giza Eskubideen errespetuan oinarritutako hezkuntza eta prestakuntza bultzatzekoa eta normalizazio politikoari laguntzekoa.

Programa honetan sartuta dauden jardueretatik **Giza Eskubideen Zinemaldiak** du proiektio sozial handiena. Jarduera hori Giza Eskubideen Bulegoak antolatzen du, Donostia Kulturarekin eta beste eragile batzuekin batera. Jarduera horretarako kontu-saila (226.99.03) **158.847,00 €-tik 130.978,00 €-ra gutxitu da (-% 17,5)**.

Kontu-saila **Gastuen azalpena**

Zenbatekoa

226.99	Bestelako gastuak	420.408,00
226.99.01	Memoria historikoa	45.500,00
226.99.02	Sentsibilizazio eta kontzientziazio programak	50.300,00
226.99.03	Giza eskubideen Zinemaldia	130.978,00
226.99.04	Bakea eta elkarbizitza munduan	1.000,00
226.99.06	Oroitzapenerako ekintzak eta biktimen aitortza	25.000,00
226.99.07	Proiektuak beste erakunde batzuekin	161.630,00
226.99.08	Gerra Zibileko lekuak seinaleztatzea	6.000,00

● KULTURA ANIZTASUNA

Kultur Aniztasuna programa, *Hezkuntza* gastu politikan sartua, 446.541,00 eurora gutxitu da 2021ean; udal aurrekontuaren % 0,11 da. 2020an, partida honetarako 479.775,00 euro esleitu ziren, hau da, udal aurrekontuaren % 0,11. Beraz, **33.234,00 € gutxitu da (-% 6,93)**.

Programa horren helburu nagusiak dira herritarrak sentsibilizatzea, bizikidetzak sustatzeko eta arrazakeria eta xenofobia eragozteko, herritar berriei harrera egitea eta haien partaidetza soziala bultzatzea.

KULTURA ANIZTASUNA	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
1. kapitulua	197.540,00	213.721,00	16.181,00	%8,1
2. kapitulua	182.235,00	145.130,00	-37.105,00	-%20,4
4. kapitulua	100.000,00	87.690,00	-12.310,00	-%12,3
GUZTIRA	479.775,00	446.541,00	-33.234,00	-%6,9

Kapitulua, programa honetan ere handitu egin da 1. kapitulua (langileria gastuak), eta murriztu 2. eta 4. kapituluak, % 20,4 eta % 12,3, hurrenez hurren.

2. kapituluan, kontu-sail hauek murriztu dira: 226.99.01 (-3.000,00 €), 226.99.03 (aurreko atalean aipatua), 226.99.04 (-20.000,00 €) eta 227.04 (-21,105,00 €).

Kontu-saila	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
226.99.01	Sentsibilizazio kanpainak	25.000,00
226.99.03	Emakumearen gune interkulturala	8.000,00
226.99.04	Parte hartzea	10.000,00
227.04	Donostiar hiritartasun anitzak	100.000,00

4. kapituluan, kontu-sail hauek murriztu dira: 481.01 (-5.850,00 €), 481.02 (-1.460,00 €) eta 481.03 (-5.000,00 €).

Kontu-saila	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
481.01	Kultur aniztasunari buruzko proiektuetarako dirulaguntzak	60.000,00
481.02	Zuzeneko beste dirulaguntza batzuk	13.540,00
481.03	Dirulaguntza Camelamos Adiquerar ijito elkarteari	20.000,00

Programa giltzarria da generoaren eta intersektzioaren ikuspegitik, eta gai hori bereziki landu nahi da Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Planean, 2. proiektu-emaitzan: *Ikuspegi intersektzionala*.



– 2. eta 4. kapituluetakoko kontu-sailak berreskuratzeko gomendioa

● DONOSTIA KULTURA

Donostia Kultura Donostiako Udalaren mendeko enpresa erakunde publiko bat da, udal politika kulturala bideratzen duena, eta herritarrei zenbait zerbitzu eskaintzen dizkiena, kulturarekin eta jai herrikoiekin lotuak, nortasun indibiduala eta kolektiboa osatzen duten adierazpenak baitira. Erakundearen beste helburu batzuk dira udalerriko ondare kulturala eta artistikoa mantentzea, sormenaren eta ekoizpenaren arloko bertako kultura ekimenak babestea, eta kultura askotariko, ireki eta tolerante bat sustatzea, besteak beste.

Donostia Kulturaren 2021eko aurrekontua 26.608.921,00 euro da, hau da, **2020an baino 4.338.310,00 euro gutxiago (-%14,02)**, orduan 30.947.231,00 euro baitzen. **Udal aurrekontuaren % 6,7** da. Gastua gutxitu izanaren arrazoiak bi dira: batetik, hainbat jarduera ezin dira egin pandemiak eragindako murrizketen ondorioz, eta, bestetik, gastuari eutsi beharra dago.

Diru sarreren atalean, **Donostiako Udalaren ekarpena da diru iturririk garrantzitsuenak: 22.200.000,00 euro gastu arrunterako (2020an baino 2.321.446 euro gutxiago)**, eta **680.000 € kapital gasturako**. Haren atzetik daude espazioak alokatzeagatiko eta zerbitzuak emateagatiko ordainak eta beste erakunde batzuen dirulaguntzak.

DONOSTIA KULTURA	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
1. kapitulua	13.299.130,00	13.018.999,00	-280.131,00	-%2,1
2. kapitulua	16.566.102,00	12.533.177,00	-4.032.925,00	-%24,3
4. kapitulua	641.863,00	375.245,00	-266.618,00	-%41,5
6. kapitulua	430.000,00	680.000,00	250.000,00	%58,1
8. kapitulua	10.136,00	1.500,00	-8.636,00 €	-%85,2
GUZTIRA	30.947.231,00	26.608.921,00	-4.338.310,00	-%14,02

Hazi den kapitulu bakarra 6. kapitulua da, inbertsio errealena; batetik, 680.000 euro gorde dira Victoria Eugeniako (287.000,00 €) eta San Telmoko (30.000,00 €) fatxada historikoetarako, eta, bestetik, 533.000 euroko kontu-sail bat jaso da, Larrotxene kultur etxerako.

Programa garrantzitsua da genero ikuspegitik, eta emakume askok hartzen dute parte, erabiltzaile eta profesional gisa, egungo krisiak gogor astindutako sektore horretan.

- **DONOSTIAKO UDALAREN MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA**
UDALAREN MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA (LIBURUTEGIA)
UDALAREN MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA (TXISTULARIAK)

Musika eta Dantza Eskola udalaren erakunde autonomo bat da. Irakaskuntza ez-arautuaren helburuak bere egiten ditu kulturaren sorkuntzari, kritikari eta hedapenari begira, musika eta dantza diziplinen alor espezifikoan, lehenetsuz hartuta.

Haren eginkizunak dira ikaskuntza antolatzea, irakaskuntza bideratzea eta Ikasketa Planean sartutako diziplinen ikerketa garatzea, baita bere alorreko zerbitzu publikoa emateari berez dagoen administrazioa kudeatzea ere.

Musika Eskolaren 2021eko aurrekontua 5.711.134 € da, 2020an baino **401.163 € gehiago**, orduan 5.309.971,00 € baitzen.

Udal aurrekontuetako hiru programa hartzen ditu: Udalaren Musika eta Dantza Eskola (4.907.606,00 €) % 9,05 hazi da, 2020arekin alderatuta; Musika eta Dantza Eskolako Liburutegia (156.323,00 €) % 5,84 jaitsi da; eta Musika eta Dantza Eskolako Txistulariak (647.205,00 €) % 0,53 hazi da, 2020arekin alderatuta.

Donostiako Udalaren ekarpena 3.220.00,00 euro da gastu arruntan (2020koa baino 174.001 € gehiago), eta 144.000,00 euro kapital gastuan (2020an baino 83.125 € gehiago).

MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
1. kapitulua	4.667.702,00	4.988.657,68	320.955,78	%6,9
2. kapitulua	581.244,00	578.025,99	-3.218,01	-%0,6
3. kapitulua	150,00	450,00	300,00	%6,1
6. kapitulua	60.875,00	0,00	-60.875,00	-%100,0
GUZTIRA	5.309.971,00	5.567.133,00	257.162,76	%4,9

- **GAZTERIA**

Gazteria programa, *Kultura* gastu politikan sartua, 2.296.281 € da 2021ean, udal aurrekontuaren % 0,58. 2020an, 2.631.402,00 euroren diru izendapena izan zuen kontu-sail honek, aurrekontuaren % 0,61; beraz, **335.121,00 euroren beherapena (-% 12,7)** izan du.

Programa horren helburua da hiria erakargarria izatea haur, nerabe eta gazteentzat, kalitatezko aisialdi hezigarria eskaintzea eta gazteei lana eta etxebizitza lortzen laguntzea.

GAZTERIA	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
1. kapitulua	500.492,00	498.695,00	-1,797,00	-%0,4
2. kapitulua	1.957.230,00	1.578.584,00	-378.646,00	-%19,3
4. kapitulua	173.680,00	138.900,00	-34.780,00	-%20,0
6. kapitulua	0,00	80.102,00	80.102,00	%100,0
GUZTIRA	2.631.402,00	2.296.281,00	-335.121,00	-%12,7

Gazteria programako 2. kapitulurako esleipena **378.646,00 € (-% 19,3) gutxitu da**; 2020an 1.957.230,00 euro zen, eta 2021ean, 1.578.584,00 euro da.

Jaitsiera horren zati handi bat (-308.892,00 €) kapituluko partidarik garrantzitsuenean gertatu da, haurtxokoen eta gazteleen sarerako 227.04 partidan, 1.452.491,00 €-tik 1.143.599,00 €-ra igaro da eta. Ekipamendu horiek estrategikoak dira generoaren ikuspegitik; izan ere, aukera ematen dute zuzenean hurrekin eta gazteekin lan egiteko eta haien beharrak eta interesak lehen eskutik ezagutzeko, hezkuntza ez-formaleko programen bidez Espazio horiek hiriko auzoetan banatuta daude, sare handi bat osatzen dute, eta kanpoko kontratazio bidez kudeatzen dira. Kontratuaren baldintza agirietan jasota daude berdintasun klausula batzuk, eta, horri esker, zentro horietako hezitzaileek berdintasunaren arloko prestakuntza daukate, eta hezkidetzako jarduerak egiten dituzte hurrekin eta gazteekin.

Bestalde, desagertu egin da *Gazte trukaketak: gazteak eta Europa* kontu-saila (38.045,00 €), eta murriztu egin dira 226.06.03 (-18.166,00 €), 226.06.05 (-1.300,00 €), 226.06.06 (-20.500,00 €) eta 226.06.10 (-5.000,00 €) kontu-sailak.

Kontu-saila	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
226.06	Jarduera soziokulturalak	190.220,00
226.06.03	Haur eta gazteen aisia (aisialdia eta Eguberriak)	31.650,00
226.06.04	Gazte plana	24.000,00
226.06.05	Kultura hedapena	5.200,00
226.06.06	Kultura sustapena	35.000,00
226.06.07	Berdintasunerako programak	25.500,00
226.06.08	Ludopatiaren aurkako programa	10.000,00
226.06.09	Martx Up! Programa	38.870,00
226.06.10	Programa 0-5 años	20.000,00
227.04	Zerbitzu enpresak	1.143.599,00

4. kapitulua 34.780,00 € murriztu da 2021ean. Desagertu egin da zuzeneko beste dirulaguntza batzuetarako kontu-saila (-5.523,00 €), eta jaitsi egin dira 433.01 (-200 €), 480.01 (-4.000,00 €), 481.01 (-17.000,00 €), 481.02 (-6.757,00 €) eta 481.04 (-1,300,00 €) kontu-sailak.

Kontu-saila	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
433.01	DKrekin ikus-entzunezko hitzarmenentarako ekarpena	1.800,00
480.01	Gazteentzako lokaletan aurretiazko komunikazioak egiteko dirulaguntzak	6.000,00

481.01	Gazte elkarteak	68.000,00
481.02	Haurtxokoak (udal haurtxoko gabeko auzoetarako haur ekipamenduetarako hitzarmenak)	57.900,00
481.04	Gabonak zuretzat	5.200,00
4. kapitulua, guztira		138.900,00

6. kapituluan 80.102,00 €-ko kontu-sail bat aurreikusten da Anoetako Haurtxoko eta Gaztelekua hornitzeko. Kontu-sail hori garrantzitsua da generoaren ikuspegitik.

Programa hau funtsezkoa da Donostiako Udaleko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planak lortu nahi dituen 8 proiektu-emaitzetatik 4ren neurriak garatzeko: *Donostia, feminismoaren aldeko hiria, Erabateko prebentzioa, Erreparazio integrala eta Kalitatezko zaintzak eta enpleguak*. Pandemiak eragindako egoeran, oso beharrezkoak dira 5.1 neurria. *Neska eta emakume gazteentzako kultura, aisialdi, sexualitate eta abarren programak eskaintzea*, 6.2 neurria. *Indarkeria saihesteko pack bat garatzea ikastetxeentzat*, eta 6.5 neurria. *Arrisku egoerak identifikatzea*.



– Haurtxoko eta gaztelekuetarako kontu-saila (227.04) berreskuratzea.

- **DONOSTIA KIROLA**
KIROL INSTALAZIOAK (DONOSTIA KIROLA)
KIROLA: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Kiroletako Udal Patronatua Udalaren erakunde autonomo bat da, udalerrian kirola garatzea xede duena, kirola pertsonen oinarrizko eskubidea dela iritzita, izan kirolaren heziketa-prestakuntza alderdiari erreparatuta, izan jolas alderdiari eta alderdi lehiakorrari erreparatuta, bai eta kirola ikuskizun gisa hartuta ere.

Kirol instalazioak kudeatzen ditu, zuzenean (Belodromoa, Gasca-Atano, Bidebieta, Donostia Arena, Intxaurren, Altza, Egia, Benta Berri, Etxadi) edo zeharka (Zuhaizti kiroldegia, Martutene FK, Berio FK, Matigoxotegi FK, Cesar Benito FK, Puio FK, Loiolako Erriberak KK).

Kirol Txartela eta kirol kanpainak kudeatzen ditu. Eta dirulaguntza izendun eta konkurrenteak ematen dizkie kirol klub eta federazioei.

Kirolaren Udal Patronatuak 17.620.276,00 euroko aurrekontua du 2021erako (udal aurrekontuaren % 4,4), 2020an baino 230.455 euro gehiago, urte horretan 17.389.821 euroren aurrekontua (% 4,03) izan baitzuen. Udal aurrekontuetako hiru programa hartzen ditu: Kirola: Zuzendaritza eta administrazioa (4.272.605,00 €), Donostia Kirola (2.977.069,00 €) eta Donostia Kirola kirol instalazioak (10.370.602,00 €).

Donostiako Udalaren ekarpena 7.611.840,00 euro da gastu arruntean eta 560.000,00 euro kapital gastuan.

DONOSTIA KIROLA	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
1. kapitulua	4.968.043,00	5.022.153,00	54.110,00	%1,1
2. kapitulua	9.817.778,00	10.745.123,00	927.345,00	%9,4
4. kapitulua	23.500,00	23.500,00	0,00	%0,0
6. kapitulua	1.865.500,00	1.269.500,00	-596.000,00	-%31,9
8. kapitulua	715.000,00	560.000,00	-155.000,00	-%21,7
GUZTIRA	17.389.821,00	17.620.276,00	230.455,00	%1,30

6. kapituluak, inbertsio errealenak, bi kontu-sail ditu: Illunberako zurezko pista (100.000,00 €) eta Altzako udal kiroldegirako ekipamendua (600.000,00 €).

COVID KRISIAREN BEHATOKIA

2020ko urtarriletik otsailera bitarteko aldian, sarreraren % 43 emakumeek egin dituzte, eta % 57 gizonezkoek. Konfinamendua amaitu eta instalazioak ireki ondoren, **2020ko ekainetik abendura bitarteko aldian, sarreraren % 39,4 emakumezkoek egin dituzte (-3,6 puntu), eta % 60,6 gizonezkoek.**

7.3. Oinarrizko zerbitzu publikoak

● UDALTZAINGOA

Udaltzaingoa programa, *Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna* gastu politikan sartua, 23.915.428,00 € da 2021ean, eta udal aurrekontuaren % 6,02 da.

2020an, partida honetarako 23.915.428,00 euro esleitu ziren, hau da, udal aurrekontuaren % 5,73.

Beraz, **874.364,00 € gutxitu da (-% 3,53)**.

UDALTZAINGOA	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
1. kapitulua	23.218.115,00	22.400.452,00	-817663	-%3,5
2. kapitulua	1.506.429,00	1.398.008,00	-108.421,00	-%7,2
6. kapitulua	65.248,00	116.968,00	51.720,00	%79,3
GUZTIRA	24.789.792,00	23.915.428,00	-874.364,00	-%3,5

1. kapitulua, genero ikuspegitik interesgarriena, kontuan hartuta udaltzainek ematen dietela arreta eraso sexistak jasaten dituztenei, 817.633,00 € gutxitu da (-% 3,5).

6. kapitulua, inbertsioena, % 79,3 hazi da 2021ean, eta kontu-sail hauek ditu:

- Komisariako elektrizitate hartunea (45.194,00 €)
- Ur lainoztatu bidezko itzaltze sistema (18.139,00 €)
- Zerbitzuetako informazio prozesuetarako ekipoa (30.003,00 €): CDC dei grabagailua, 6 Videowal pantaila eta CDCrako instalazioa, ILC sistemako ekipamendua
- Drona (23.632,00 €)

● HIRI MUGIKORTASUNA

Hiri Mugikortasuna programa, *Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna* gastu politikan sartua, 8.931.688,00 € da 2021ean, udal aurrekontuaren % 2,25. 2020an, partida honetarako 8.775.134,00 euro esleitu ziren (udal aurrekontuaren % 2,03). **156.554,00 euro gehiago (% 1,78)** izango ditu programa honek.

HIRI MUGIKORTASUNA	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
1. kapitulua	6.019.270,00	5.974.770,00	-44500	-%0,7
2. kapitulua	2.457.364,00	2.155.953,00	-301.411,00	-%12,3
4. kapitulua	10.500,00	9.240,00	-1.260,00	-%12,0
6. kapitulua	288.000,00	721.725,00	433.725,00	%150,6
GUZTIRA	8.775.134,00	8.931.688,00	156.554,00	%1,8

Kapituluka, 1., 2. eta 4. kapituluak murriztu dira.

2. kapituluan, desagertu egin da **Eskola Bidea kontu-saila (3.000,00 €)**. Programa interesgarria da generoaren ikuspegitik; izan ere, neska-mutilen autonomia sustatzen du, boluntarioen laguntzaz, etxetik eskolara taldean joateko.

4. kapituluan, bi kontu-sailen artean banatzen da jaitsiera: 435.01 (-900 €) eta 481.01 (-360,00 €).

Kontu-saila	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
435.01	Bizikleta Behatokitako diru ekarpena Cristina Eneari	6.600,00
481.01	Bizikleta erabilera sustatzeko diru ekarpena Kalapieri	2.640,00
	4. kapitulua, guztira	9.240,00

6. kapitulua (inbertsio errealak) bakarrik igo da, % 150,6.

Kontu-saila	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
601	Erabilera orokorreko azpiegitura eta urbanizazioa	521.725,00
622	Zerbitzuetarako eraikinak eta bestelako eraikuntzak	200.000,00
	6. kapitulua, guztira	721.725,00

601 kontu-saila inbertsio hauetarako erabiliko da:

- Garberako biribilgunearen inguruan bideak jartzeko proiektua.
- Orixe ikastolaren inguruan oinezkoentzako eta aisialdirako gune bat sortzea (parte hartze bidezko aurrekontuak)
- Ondarreta hondartzako pasealekua handitzea eta Haizearen Orraziaren pasealekua oinezkoentzat jartzea (parte hartze bidezko aurrekontuak).

Eta 622 kontu-saila, bizikletentzako estalpeetarako (parte hartze bidezko aurrekontuak).

Mugikortasun jasagarriak bateratzea eta erantzukidetasuna sustatzen ditu. Mugikortasun jasagarria harago doa, eta hurbileko zerbitzuak behar ditu auzoetan (eskolak, haurtzaindegiak, osasun zentroak, dendak eta abar) jendeak joan-etorri laburrak egiteko, ahal dela oinez.

Sexu bakoitzak erabiltzen dituen garraio motei buruzko datuak aintzat hartuta, komeni da gogoan edukitzea garraio publikoko sarea hobetzera bideratutako gastuak onura handiagoa ekarriko diela emakumei eta horiek zaintzen dituzten pertsonari: adingabeak eta mendekotasun mailaren bat duten pertsonak. Aldiz, aparkalekuetan edo ibilgailu pribatuen joan-etorriak hobetzeko proiektuetan inbertituz gero, onuradun nagusiak gizonak izango dira.

Era berean, kontuan hartu behar da espaloian eraikitako bidegorriek espazioa eta segurtasuna kentzen dizkietela oinezkoiei, batez ere ahulenei (adinekoei eta haurrei), eta arazoak sortzen dituztela oinezkoen eta txirrindularien artean. Motordun zirkulaziotik hurbil dauden babes gutxiko bidegorriak ez dira oso erakargarriak emakumeentzat, eta segurtasun gutxiagokoak dira txirrindulari guztientzat. Beraz, bidegorri seguruetan inbertitzea komeni da, hau da, zirkulazioaren abiadura moteltzen lagunduko duten eta oinezkoen pasabideetan ahalik eta eragozpen gutxien sortuko duten bidegorrietan.



– 2020ko gomendioa errepikatzen dugu, partida espezifiko bat txertatzea mugikortasunaren programak generoaren ikuspegitik garatzeko.

● MUGIKORTASUN BERTIKALA

Mugikortasun Bertikala programa, *Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna* gastu politikan sartua, 315.000,00 €-tik 80.000,00 €-ra gutxitu da, eta udal aurrekontuaren % 0,02 da. **235.000,00 €-ko murrizketa (-% 74,60).**

MUGIKORTASUN BERTIKALA	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
6. kapitulua	315.000,00	80.000,00	-235.000,00	-%74,6
GUZTIRA	315.000,00	80.000,00	-235.000,00	-%74,6

Programa hau 2020an sortu zen, inbertsioen 6. kapituluan (315.000,00 €), Heriz-Erregezaintzako igogailua jartzeko partida bakar bat zuela. Inbertsio garrantzitsua da generoaren ikuspegitik, mugikortasun jasagarria eta irisgarritasuna bultzatzen baititu. 80.000,00 € horien helburua partida hura osatzea da.

● HIRIGINTZA

Hirigintza programa, *Etxebizitza eta hirigintza* gastu politikan sartua, 11.302.406,00 €-ra murriztu da 2021ean, eta udal aurrekontuaren % 2,84 da. 2020an, partida honetarako 16.122.213,00 euro esleitu ziren (udal aurrekontuaren % 3,73). Beraz, **4.819.807,00 euro (-% 29,9) gutxiago** izango ditu.

HIRIGINTZA	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
1. kapitulua	4.419.222,00	4.237.452,00	-181.770,00	-%4,1
2. kapitulua	341.791,00	266.357,00	-75.434,00	-%22,1
6. kapitulua	11.361.200,00	6.798.597,00	-4.562.603,00	-%40,2
GUZTIRA	16.122.213,00	11.302.406,00	-4.819.807,00	-%29,9

Kapituluka, hirurak jaitsi dira, baina 6. kapituluan (inbertsio erreala) pilatzen da jaitsieraren % 94,7.

Kontu-aila	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
600	Inbertsioak erabilera orokorreko lurretan	5.000.000,00
601	Erabilera orokorreko azpiegitura eta urbanizazioa	1.771.666,00

643	Ikerketak, azterlanak eta proiektuak	26.931,00
	6. kapitulua, guztira	6.798.597,00

Kapitulua hiru kontu-sail ditu. 600 kontu-saila Loiolako kuarteletako lurretarako da; 601 kontu-saila, Amara kaleko 11-13. eta 17. eraikinak eraisteko, Astiñene zubirako, Eskusaitzetako urbanizaziorako eta Añorgako bulebarizaziorako (II. fasea); eta 643 kontu-saila, antolamendu eta gauzatze lanetarako.

Ez dirudi 643 kontu-sailaren barruan kontu-sailik sartu denik arau eta egintza administratiboaren genero inaktuaren aurretiko ebaluazioak egiteko laguntza teknikoa kontratatzeko.

Azpimarratu behar da Hirigintza atalak berdintasunerako klausulak sartu dituela Hiri Antolamenduko Plan Orokorrerako kontratazio agirietan.



- Partida espezifiko bat sartzea prestakuntza izateko eraginaren aurretiazko ebaluazioak generoaren arabera egiteko edo horiek egiteko kanpoko laguntza tekniko bat kontratatzeko.

● DONOSTIAKO ETXEGINTZA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA

Etxegintza enpresa publikoaren aurrekontua nabarmen murriztu da 2021ean: 2020an zeuden 20.528.662 euroetatik (udal aurrekontuaren % 4,75) 14.955.544,00 €-ra (% 3,76); **5.654.118,00 €-ko murrizketa (-% 27,43) izan da**, eta gehienbat 6. kapituluan (inbertsioak) metatu da.

ETXEGINTZA	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
1. kapitulua	1.896.637,00	1.866.000,00	-30.637,00	-1,6
2. kapitulua	3.941.250,00	3.441.000,00	-500.250,00	-%12,7
3. kapitulua	1.050.352,00	835.000,00	-215.352,00	-%20,5
6. kapitulua	8.776.001,00	3.913.616,00	-4.862.385,00	-%55,4
9. kapitulua	4.864.692,00	4.899.928,00	35.236,00	%0,7
GUZTIRA	20.528.662,00	14.955.544,00	-5.654.118,00	-%27,43

Donostiako Udalaren ekarpena 2.869.539,00 euro da mailegu amortizaziorako, 144.121,00 € gastu arrunterako, eta 1.863.616,00 euro kapital gasturako. 2020an, 694.058 €-ren ekarpena egin zuen gastu arrunterako, eta 2.738.922,00 €-rena kapital gasturako.

Kontuan izanda gaur egungo krisialdian zer-nolako garrantzia hartu duen osasuna etxean babesteak, programa hau funtsezkoa da generoaren ikuspegitik.

● BIDE PUBLIKOAK

Bide Publikoak programa, *Etxebizitza eta hirigintza* gastu politikan sartua, 1.832.919,00 €-ra murriztu da 2021ean, eta udal aurrekontuaren % 0,46 da. 2021ean, partida honetarako 2.156.287,00 euro esleitu ziren (udal aurrekontuaren % 0,50). Beraz, **323.368 euro (-% 15,00) gutxiago izango ditu.**

BIDE PUBLIKOAK	2020	2021	Diferentzia:	
			Zenbatekoa	%
1. kapitulua	392.457,00	451.502,00	59.045,00	%15,0
2. kapitulua	1.145.830,00	1.005.497,00	-140.333,00	-%12,2
6. kapitulua	480.000,00	375.920,00	-104.080,00	-%21,7
GUZTIRA	2.018.287,00	1.832.919,00	-323.368,00	-%15,00

Kapituluka, langileen gastuak % 15 gehitu dira; bestalde, ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak % 12,2 murriztu dira, eta inbertsio errealak, % 21,7.

2. kapituluan, 227.13.03 kontu-saila, **haurren jolasak eta parkeak mantentzekoa**, 225.000,00 eurotik 190.000 eurora jaitsi da (-% 15,6), eta 227.13.04 kontu-saila, **bankuak mantentzekoa**, 2020an bezala mantendu da, 130.725,00 euroan. Bi kontu-sail horiek hiriaren antolamenduan kokatzen dituzte zainketak.

Kontu-saila	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
601	Erabilera orokorreko azpiegitura eta urbanizazioa	375.920,00
	6. kapitulua, guztira	375.920,00

6. kapituluko 601 kontu-sailak inbertsio hauek biltzen ditu: Casares kultur etxearen eta Harri Berri parkearen arteko lorategia garbitzea eta berritzea (parte hartze bidezko aurrekontuak); Txakurrentzako parkea (parte hartze bidezko aurrekontuak); Haur parkeak ordezkatzeko eta berritzea; Haur parkeetako segurtasun zoladura jarraituak ordezkatzeko; Salamanca pasealekuko baranda berritzea.

● ARGITERIA PUBLIKOA

Argiteria publikoa programa, *Komunitate ongizatea* gastu politikan sartua, 3.720.077,00 €-ra murriztu da 2021ean, eta udal aurrekontuaren % 0,94 da. 2020an, partida honi 4.222.331,00 euro (aurrekontuaren % 0,98) esleitu zitzaizkion; beraz, **502.254,00** euroren (-% 11,90) jaitsiera izan du; kapituluka, 2. eta 6. kapituluan metatu da jaitsiera hori. Ez da inbertsiorik aurreikusi 2021erako.

ARGITERIA PUBLIKOA	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
1. kapitulua	56.041,00	59.197,00	3.156,00	%5,6

2. kapitulua	3.956.290,00	3.660.880,00	-295.410,00	-%7,5
6. kapitulua	210.000,00	0,00	-210.000,00	-%100,0
GUZTIRA	4.222.331,00	3.720.077,00	-502.254,00	-%11,90

Murriztu egin dira 2. kapituluko funtsezko kontu-sailak, 221.01 *Energia elektrikoa* eta 227.13.02. *Argiteria publikoa mantentzea*: hurrenez hurren, % 13 (2.000.000,00 eurotik 1.740.420,00 eurora) eta % 1,4 (1.800.000,00 eurotik 1.775.000,00 eurora).

Garrantzitsua da efizientzia energetikoaren hobekuntzak ez ekartzea murrizketa handirik eremuen eta kaleen argitasunean, hori funtsezkoa baita generoaren ikuspuntutik, horrek segurtasuna eta segurtasun sententzia areagotzen duen aldetik.

● PARKEAK ETA LORATEGIAK

Parkeak eta lorategiak programa, *Ingurumena* gastu politikan sartua, 6.602.143,00 € da 2021ean, udal aurrekontuaren % 1,66. 2020an, partida honetarako 7.231.461,00 euro esleitu ziren (udal aurrekontuaren % 1,67). Beraz, **629.318,00 euro (-% 8,70)** gutxiago izango ditu.

Kapitulu guztiak murriztu dira.

PARKEAK ETA LORATEGIAK	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
1. kapitulua	588.633,00	548.482,00	-40.151,00	-%6,9
2. kapitulua	6.467.828,00	5.934.661,00	-533.167,00	-%8,2
6. kapitulua	175.000,00	119.000,00	-56.000,00	-%32,0
GUZTIRA	7.231.461,00	6.602.143,00	-629.318,00	-%8,70

2. kapitulan, partidarik garrantzitsuena (227.14), berdeguneen mantentze lanetarako dena, 5.706.806,00 eurotik 5.202.601,00 eurora murriztu da (-% 8,8).

Termino erlatiboetan, gehien jaitsi den kapitulua inbertsioena da. 601 kontu-sail bat du, 119.000,00 eurorena, Kristinaenea parkearen biodibertsitatea areagotzeko eta zuhaitz gehiago aldatzeko.

Hiriaren erabilera komunitarioa bultzatzen duten partidak dira, eta COVIDaren garaian garrantzi handiago hartzen dute.

● HONDARTZAK

Hondartzak programa, *Ingurumena* gastu politikan sartua, 2.931.830,00 €-ra gutxitu da 2021ean, eta udal aurrekontuaren % 0,74 da. 2020an, partida honetarako 3.253.704,00 euro esleitu ziren (% 0,75). Beraz, **321.874,00 euro (-% 9,89)** gutxiago izango ditu.

Kapitulua, 6. kapitulan dago jaitsiera, ez baita inbertsiorik aurreikusi 2021erako, eta baita 2.

kapituluan ere, % 5,6 jaitsi baita.

HONDARTZAK	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
1. kapitulua	127.652,00	127.224,00	-428,00	-%0,3
2. kapitulua	2.972.116,00	2.804.606,00	-167.510,00	-%5,6
6. kapitulua	153.936,00	0,00	-153.936,00	-%100,0
GUZTIRA	3.253.704,00	2.931.830,00	-321.874,00	-%9,89

2. kapituluko partidarik aipagarrienak kontuan hartuta, honako partida hauek mantenduko dira: 227.01 *Hondartzak garbitzeko lanak*, 806.551,00 euroan, 227.01.01 *Ondarretako hondartzatik harriak kentzea* (227.01.01), 292.935,00 euroan, eta 227.99.02 *Aulkiak eta eguzkitakoak alokatzea*, 289.896,00 eurotan. Eta kontu-sail hauek murriztu dira: 227.99.04. *Salbamendu eta sorospena*, 790.000,00 eurotik 724.438,00 eurora (-% 8,3), eta 227.99.03. *Aldagela kolektiboak*, 429.336,00 eurotik 341.892 eurora (-% 20,4).



- 2020ko proposamen bera egiten dugu: partida espezifiko bat sartzea, besteak beste, aldageletan, aulkiak eta eguzkitakoak alokatzen eta garbitzen ari diren langileek prestakuntzajasotzeko indarkeria matxistaren prebentzioan, edo, halakorik bada, berdintasun klausulak txertatzeko zerbitzuak kontratatzeke agirietan.

7.4. Jarduketa ekonomikoak

● HIRI MANTENTZE ETA ZERBITZUAK: ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Hiri mantentze eta zerbitzuak: zuzendaritza eta administrazioa programa, *Azpiegiturak* gastu politikan sartua, 1.421.847,00 € da 2021ean, udal aurrekontuaren % 0,36. 2020an, partida honetarako 1.370.429,00 euro esleitu ziren (aurrekontuaren % 0,32). Beraz, **51.418,00 euro (% 3,75)** gehiago izango ditu.

HONDARTZAK	2020	2021	Diferentzia	
			Cantidad	%
1. kapitulua	1.002.929,00	1.067.347,00	64.418,00	%6,4
2. kapitulua	167.500,00	114.500,00	-53.000,00	-%31,6
6. kapitulua	200.000,00	240.000,00	40.000,00	%20,0
GUZTIRA	1.370.429,00	1.421.847,00	51.418,00	%3,75

Kapituluka, behera egin dute 1. eta 2. kapituluek, eta igoera, berriz, inbertsio errealen kapituluan izan da, % 20 hazi baita.

240.000,00 € horiek kontu-sail orokor bat jasotzen dute, 601.*Erabilera orokorreko azpiegitura eta urbanizazioa*, eta, beraz, ezin da generoaren azterketa egin.

● PROIEKTU ETA OBRAK

Proiektu eta Obrak programak, *Azpiegiturak* gastu politikan sartua, nabarmen jaitsi da 2021ean: 5.633.999 euro (-% 51,26); 2020an, 11.390.650,00 € ziren (udal aurrekontuaren % 2,54), eta, 2021ean, 5.356.651,00 (% 1,35). Murrizketa hori 6. kapituluan (inbertsio errealak) gertatu da, % 67,3 jaitsi baita. 1. eta 2. kapituluak, berriz, igo egin dira.

PROIEKTU ETA OBRAK	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
1. kapitulua	2.244.903,00	2.314.868,00	69.965,00	%3,1
2. kapitulua	75.747,00	80.000,00	4.253,00	%5,6
6. kapitulua	9.070.000,00	2.961.783,00	-6.108.217,00	-%67,3
GUZTIRA	11.390.650,00	1.421.847,00	-5.633.999,00	-%51,26

6. kapituluak, bi kontu-sail orokor hauen bidez, inbertsio hauek aurreikusten ditu:

kontu-saila	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
601	Erabilera orokorreko azpiegitura eta urbanizazioa	1.961.783,00
622	Zerbitzuetarako eraikinak eta bestelako eraikuntzak	1.000.000,00
	6. kapitulua, guztira	2.961.783,00

601 kontu-saila, *Erabilera orokorreko azpiegitura eta urbanizazioa*: Altzako kiroldegi ingurua berrurbanizatzea; Iztuetako zubibidearen ingurunea hobetzea; Felix Irazo aparkalekua; Kontxako barandaren 2. fasea. Eta 622 kontu-saila, *Eraikinak eta bestelakoak: zerbitzuetarako eraikuntzak*: Arrandegia eraikina.

Urbanizazioak interesgarriak dira, betiere oinezkoentzako guneak edo erabilera komunitarioko eremuak jartzeko badira, hiriaren erabilera komunitarioa, hiriguneen eraberritzea eta garraiorako autoa ez den beste modu batzuk erabiltzea errazten baitute.

● DONOSTIA TURISMOA

Donostia Turismoa SA Donostiako Udalaren merkataritza sozietate bat da. Sozietate anonimoaren izaera du, eta haren titulartasuna Udalarena da osoki. Sozietatearen helburua da Donostiako lurralde eremuan turismoaren garapena zuzenean edo zeharka bultzatzen laguntzen duten jarduera ekonomiko eta sozialak sustatu, garatu eta bultzatzea.

Donostia Turismoa SAren aurrekontua 2021erako 3.326.601,00 eurokoa da (udal aurrekontuen % 0,84); **2020. urtearekin alderatuta, 549.552,00 euro jaitsi da (-% 14,18)**. Diru sarreraren atalean, Udalaren ekarpena da diru sarrerarik handiena; izan ere, gastu arruntan 2.815.000,00 euroko ekarpena egingo du (2020an baino 136.153,00 euro gutxiago), eta kapital gastuan 40.000,00 eurokoa (2020an baino 15.000,00 € gehiago).

ETXEGINTZA	2020	2021	Diferentzia	
			Cantidad	%
1. kapitulua	2.028.653,00	1.887.793,00	-140.860,00	-%6,9
2. kapitulua	1.822.500,00	1.398.808,00	-423.692,00	-%23,2
6. kapitulua	25.000,00	40.000,00	15.000,00	%60,0
GUZTIRA	3.876.153,00	3.326.601,00	-549.552,00	-%14,18

6. kapituluko kontu-saila hainbat kudeaketa softwaretarako da.

Turismoa da COVIDaren krisiak gehien jo duen sektoreetako bat.

COVID KRISIAREN BEHATOKIA

2020ko abuztuko gauak 2020ko abuztukoaren % 73,43 izan dira, eta urrian, 2020ko hilabete horren % 32,90.



- Parte hartzea Batzorde Politiko eta Teknikoan Udalaren Berdintasunerako Plana ezartzeko.
- Sexuaren aldagaia sartzeko datuak biltzean.
- Berdintasunaren eta feminismoaren balioa lantzea hirian (ibilbideak, baliabideak, produktuak...).

● SUSTAPENA SA

Donostiako Sustapena SA erakunde publiko bat da eta hiria sustatzea eta haren garapen ekonomikoa eta soziala bultzatzea ditu helburu, horretarako oinarri hartuta berrikuntza, ezagutzen sorrera eta eraldaketa, sareko lana eta proiektuen sustapena eta kudeaketa, iraunkortasun irizpideei jarraituz.

Donostia Sustapenaren 2021erako aurrekontua 14.506.760,00 euro da (udal aurrekontuen % 3,65). Beraz, **333.601,00** euro igo da 2020. urtearekin alderatuta (% 2,35), urte horretako zenbatekoa 14.172.159,00 eurokoa izan baitzen (udal aurrekontuaren % 3,28).

Donostiako Udalak 7.177.000,00 €-ko ekarpena egin du gastu arruntan, sozietatearen diru-sarrerarik garrantzitsuena. 673.819,00 euro igo da 2020koarekin alderatuta (% 10,4).

SUSTAPENA SA	2020	2021	Diferentzia	
			Aldea	%
1. kapitulua	3.145.135,00	3.168.165,00	23.030,00	%0,7
2. kapitulua	6.660.404,00	6.639.675,00	-20.729,00	-%0,3
4. kapitulua	4.113.755,00	4.698.920,00	585.165,00	%14,2
GUZTIRA	14.172.159,00	14.506.760,00	333.601,00	%2,35

Plan garrantzitsua da generoaren ikuspegitik, are gehiago kontuan izaten badira Donostiako emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoak adierazten dituen errenta eta autonomia ekonomikoaren datuak (2019) eta krisi sozioekonomikoak emakumeen enpleguan izan duen intzidentzia. Informazio gehiago behar da, bere programen genero eragina aztertu ahal izateko.

Programa hau funtsezkoa da Donostiako Udaleko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Planak lortu nahi dituen 8 proiektu-emaitzetatik 4ren neurriak garatzeko: *Zaintzak eta kalitatezko lanak*

COVID KRISIAREN BEHATOKIA

Langabezia. 2020ko azaroko langabezia tasa % 10 da: % 10,70 emakumeen artean, eta % 9,30 gizonen artean.

Langabeen kopurua % 17 hazi da 2020ko otsailetik azarora, % 18,7 gizonen artean eta % 15,6 emakumeen artean. 2020ko azaroan, 4.816 emakume eta 4.080 gizon langabezian zeuden hirian.

ABEEak: 2020ko abendua izan da, martxotik, ABBE aktiboan pertsona gutxien izan den hilabetea. Egoera horretan daude 326 emakume eta 325 gizon.

Etxeko enpleguaren araubideko afiliazioa. 2020ko urtarrilean, 4.278 afiliatu zeuden araubide horretan. Azaroan, 4.168 zeuden, % 2,6 gutxiago.



- Partida espezifikoak Berdintasunerako erakundearen barne plana garatzeko.
- Partida espezifikoak enpleguaren, ikaskuntzaren eta talentua atxikitzearen inguruko proiektuak garatzeko emakumeentzat.
- Partida espezifikoak Donostiako enpresetako berdintasuna eta soldata arrakala kudeatzeko proiektuak egiteko.

● DBUS

Dbus enpresa publikoak 2021erako duen aurrekontua 44.849.995,00 €-ra murriztu da (udal aurrekontuaren % 11,29); **1.759.295,00 € gutxitu da (-% 3,77) 2020arekin alderatuz.** Urte horretan, programaren zenbatekoa 46.609.290,00 € izan zen (udal aurrekonturen % 10,78).

SUSTAPENA SA	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
1. kapitulua	30.771.860,00	30.531.589,00	-240.271,00	-%0,8
2. kapitulua	8.352.869,00	7.682.177,00	-670.692,00	-%8,0
3. kapitulua	41.000,00	49.000,00	8.000,00	%19,5
6. kapitulua	6.980.301,00	3.500.000,00	-3.480.301,00	-%49,9
8. kapitulua	0,00	2.365.669,00	2.365.669,00	%100,0
9. kapitulua	463.260,00	721.560,00	258.300,00	%55,8
GUZTIRA	46.609.290,00	44.849.995,00	-1.759.295,00	-%3,77

Aurreko urteetan ez bezala, **2021ean sarrera garrantzitsuena Udalaren ekarpena da (22.689.026,00 €), eta, bigarrenik, zerbitzuak emategatiko prezio publikoak (16.908.602,00 €);** izan ere, pandemiak eragindako egoeragatik, bidaiari kopurua jaitsi egin da, eta, horrekin batera, baita prezio bidezko diru sarrerak ere (-% 19).

COVID KRISIAREN BEHATOKIA

2020ko apiriletik abendurako aldian, bidaiarien **% 68,9 emakumezkoak izan dira**, eta % 31,1, gizonezkoak. 2019an, denbora tarte berean, emakumeak % 67,1 ziren, eta gizonak, % 32,9. Emakumeak erabiltzaile gisa finkatu dira, 1,8 puntu igota.

7.5. Jarduketa orokorrak

● HERRITARREN PARTAIDETZA

Herritarren Partaidetza programa, *Administrazio orokorra* gastu politikan sartua, **101.569,00 € da 2021ean (% 11,15)**. Guztira, 2021ean, programa horren zenbatekoa 1.012.410,00 € da, udal aurrekontuaren % 0,25.

HERRITARREN PARTAIDETZA	2020	2021	Diferentzia	
			Zenbatekoa	%
1. kapitulua	445.136,00	538.006,00	92.870,00	20,9%
2. kapitulua	335.700,00	311.400,00	-24.300,00	-7,2%
4. kapitulua	100.005,00	88.004,00	-12.001,00	-12,0%
6. kapitulua	30.000,00	75.000,00	45.000,00	150,0%
GUZTIRA	910.841,00	1.012.410,00	101.569,00	11,15%

1. eta 6. kapituluak igo egin dira, eta 2. eta 4. kapituluak, jaitsi. 2. kapituluko diru izendapena 335.700 eurotik 311.400 eurora jaitsi da. Kontu-sail garrantzitsuenen artean, honako hauek murriztu dira: 226.99.02 (-25.650,00 €), 226.99.03 (-33.000 €), 226.99.05 (-30.000 €) eta 226.99.10 (-30.000,00 €). 226.99.06 kontu-saila mantendu egin da. Eta nabarmen handitu da 226.99.04 kontu-saila, *Udal transbertsalitatea partaidetzarako*, 15.000 eurotik 112.350,00 eurora (% 649).

Kontu-saila	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
226.99	Bestelako gastuak	279.700,00
226.99.02	Lurraldeko partaidetza	94.350,00
226.99.03	Asoziazionismoaren sustapena	23.000,00
226.99.04	Udal transbertsalitatea partaidetzarako	112.350,00
226.99.05	Sektore-biztanleria partaidetza	10.000,00
226.99.06	Partaidetza sektorial-tematikoa	10.000,00
226.99.10	Partaidetza aurrekontuak	30.000,00

4. kapitulua % 12 gutxitu da; izan ere, 1.012.410,00 eurotik 88.004,00 eurora pasatu da. Jaitsiera hori gertatu da Oleta auzo elkartearentzako (-3.000,00 €) eta Kanpandegirako (-7.000,00 €) dirulaguntzetarako partidak desagertu egin direlako eta 481.01 (-2.001 euro) murriztu delako.

Kontu-saila	Gastuen azalpena	Zenbatekoa
481.01	Dirulaguntzak eta hitzarmenak	70.374,00
481.02	Transferentzia Zubietako Batzordeari	5.000,00
481.04	Igeldoko Herri Kontseiluari dirulaguntza	7.000,00
481.05	Osteguna-Irale auzo elkarteari dirulaguntza	3.500,00
481.07	Egia Bizirik auzo elkarteari dirulaguntza	2.130,00
4. kapitulua, guztira		88.004,00

6. kapituluko kontu-saila zerbitzuetarako eraikinak eta bestelako eraikuntzak egiteko da.

8. BERDINTASUNA, FUNTSEZKO ZERBITZUA

Txosten honen lehen atalean adierazi den bezala, 2020ko urriaren 20an, Tokiko Gobernu Batzarrak Donostiako Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Plana (2020-2024) onetsi zuen. Plan hura COVID-19ak eragindako krisi sozioekonomikoa baino lehen diseinatutako estrategia eta jarduera proposamen bat zen, eta egungo egoerak are beharrezkoago egin du. Planak lortu nahi dituen 8 proiektu-emaitzak eta hor jaso diren neurrietako asko inoiz baino garrantzitsuagoak dira gaur egun.

BERDINTASUNA, ERABAKIAK HARTZEKO GILTZARRIA

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunak lehentasuna izan behar du COVIDari erantzuteko orduan, eta, ondoren, lehengoratzeko ahaleginak egiteko orduan.

- **Krisiaren kudeaketan sortzen diren erabakitzeko espazio eta organoetan berdintasunean eta osasunean trebatutako emakumeek parte hartzea.**
- **COVIDaren eraginari buruzko datuak sexuaren arabera bereiztea eta genero adierazle espezifikoak diseinatzea.**
- **Galdetu eta entzun egin behar zaie emakumeei, era guztietakoei. Nola egiten diote aurre bakartzeari adineko emakumeek? Izan ere, gehiengoak dira gure hiriko zaharrenean artean. Zer bizi dute emakume gazteek gehienbat online bidezkoak diren harremanetan? Zer inpaktu izaten ari da krisia emakume migratzaileen enpleguan eta osasunean? Haiek dira, izan eta, hiriko zainketei eusten dietenak...**

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA: EMAKUMEEN ETXE HANDIAGO, ASKOTARIKOAGO ETA KOORDINATUAGO BAT

Osasunari eta generoari dagokienez, beharrezkoa da bakartzetik irtetea, askotariko errealitateetatik. Gazteak, adinekoak, indarkeriazko egoerak, bakardadea, antsietatea... Horretarako, beharrezkoa da aire zabalean elkartzeko, lasaitzeko eta bestetarako espazioak izatea. Gaur inoiz baino beharrezkoagoa da eremu seguruetan beste emakume batzuekin kontaktuan jarri eta harremanak izatea. Emakumeen Etxea dagoen tokiak ez ditu baldintza horiek bermatzen. Espazioaren arazoak orain handiagoak dira. Ekipamendu egokia behar da emakumeak elkartu eta ahalduntzeko eta indarkeria matxista prebenitzeko.

ERABATEKO PREBENTZIOA: AUTODEFENTSA FEMINISTA ETA EMAKUME HELDUAK

Azken urte honetan, areagotu egin dira emakume askok jasaten zuten bizikidetzak eta indarkeria, erasotzaileekin denbora gehiago egon direla eta. Harremanetarako espazioak eta moduak aldatu egin dira, eta, horrekin batera, indarra hartu dute indarkeria modu berriek; indartu egin da autodefentsa feminista digitalari ekiteko beharra. Halaber, adineko emakumeei entzuteko eta laguntza sareak sortzeko beharra areagotu da.

KALITATEZKO ZAINTZAK ETA ENPLEGUAK

Emakumeak dira pandemiaren lehen larriaren aritzen diren osasun langileen gehiengoak, eta horrek higadura handia dakar haien osasun fisiko, mental eta emozionalean. Emakumeen presentzia handia da krisiak gehien astindutako sektore ekonomikoetan ere (ostalaritza, turismoa, merkataritza, kultura). Bereziki kaltetutako biztanleria aktiboko segmentuen artean daude, eta

baita beste segmentu batzuetan gehiengoa direlako ere (adibidez, kontratu partzialak, arautu gabeko etxeko langileen artean). Gizarte zerbitzuak ezinbestekoak dira. Jarduera profesionalen digitalizazioak arrakala digitalari heldu beharra eskatzen du. Eta etxean ordaindu gabeko lanak areagotu egin direnez (etxeko lanak, mendekotasuna duten pertsonen zaintza, adingabeen arreta...), kontziliazio erantzunkiderik ez izateak areagotu egiten du horrek emakumeen osasunean eta garapen profesionalean dituen ondorioak.

I. ERANSKINA. ZUZENKETAK

2021eko udal-aurrekontuen zuzenketa onduz, gastu eraldatzailetzat jotzen diren zenbait partida sortu edo handitu dira:

- Programa: Berdintasuna
Partida: 227.99.01
Kontzeptua: Guraso bakarreko familien kontziliazio/umezain programa
Zenbatekoa: 64.200€-rekin sortua
- Programa: Berdintasuna
Partida: 226.99.08
Kontzeptua: Pobreziaren eta prekarietatearen feminizazioaren aurkako estrategia
Zenbatekoa: 26.500€-rekin sortu
- Programa: Hezkuntza Programak
Partida: 481,03
Kontzeptua: Ikertze: Hip Hip Hurri
Zenbatekoa: 1.300€ gehitu
- Programa: Sustapena
Partida: 433,01
Kontzeptua: Sustapen Erakundearen barne berdintasun-plan bat garatu
Zenbatekoa: 29.400€ gehitu
- Programa: Sustapena
Partida: 433,01
Kontzeptua: Emakumeei zuzendutako enplegu, ekintzailatza eta talentuari eusteko proiektuak garatzeko laguntzak
Zenbatekoa: 62.500€ gehitu

Partida hauek kontuan izanda, honakoa da gastu eraldatzailearen taula:

GASTU ERALDATZAILEA 2021EKO UDAL AURREKONTUETAN						
Atala	1. kap.	2. kap.	4. kap.	6. kap.	GUZTIRA	%/aurre k. osoa
Berdintasuna	524.535,00	354.818,00	128.000,00	80.000,00	1.087.353,00	% 0,27
Lankidetzak			773.748,00		773.748,00	
Gizarte Ekintza	191.713,86	7.460,00			199.173,86	
Hezkuntza programak		41.533,00	1.300,00		42.833,00	
Giza Eskubideak		6.000,00			6.000,00	
Kultur Aniztasuna		8.000,00			8.000,00	
Donostia Kultura		164.000,00			164.000,00	
Musika eta Dantza Eskola		5.100,00			5.100,00	

Gazteria		25.500,00			25.500,00	
Donostia Kirola		6.735,00			6.735,00	
Udaltzaingoa		3.000,00			3.000,00	
Fomento S.A.			91.900,00		91.900,00	
Dbus		7.000,00			7.000,00	
Herri Partaidetza		10.000,00			10.000,00	
GUZTIRA	716.248,86	639.146,00	994.948,00	80.000,00	2.430.342,86	% 0,61

Horrela, gastu eraldatzaileak udal-aurrekontuen guztizko zenbatekoan duen pisua %0,57tik %0,61ra igo da, zuzenketen ondoren.